

HIZKUNTZA POLITIKA AURRERA BEGIRA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren
2005-2009 egitasmoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Hizkuntza politika aurrera begira. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2005-2009 egitasmoa. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005
70 or. ; 17 x 24 cm.
Badu gainera atari eta orrialdekatze propioa behekoz gora gaztelaniaz: "Futuro de la política lingüística..."
ISBN 84-457-2407-X
1. Euskara-Normalizazioa. I. Euskadi. Kultura Saila. II. Izenburua (gaztelania).
811.361'26

Argitaraldia: I.a, 2005eko abendua

Ale kopurua: 1.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Azala: Antton Olariaga

Diseinua eta maketazioa: Junkal Motxaile

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimatzailea: Itxaropena, S.A., Araba kalea, 45, 20800 Zarautz

ISBN: 84-457-2407-X

Lege-gordailua: S.S. 1622/05

HIZKUNTZA POLITIKA AURRERA BEGIRA

**Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren
2005-2009 egitasmoa**

Kultura sailburua: Miren Azkarate Villar

Hizkuntza Politikarako sailburuordea: Patxi Baztarrika Galparsoro

HABEren zuzendari nagusia: Joseba Erkizia Itoitz

Euskara Sustatzeko zuzendaria: Igone Etxebarria Zamalloa

Euskara Planen zuzendaria: Jokin Azkue Arrastoa

Koordinaziorako zuzendaria: Miren Mateo Aierza

Aholkularia: Lorea Bilbao Ibarra

Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia. Diglosiaren purgatorioetatik ihesi goazela, ez gaitzela ghettoaren infernuan eror. Hizkuntza integrazioa beste ezein bezain beharrezkoa dugu.

KOLDO MITXELENA

Hobe genuke euskarak maitasun gutxixeago eta begiramen gehixeago jasoko balu gugandik.

KOLDO MITXELENA

Besteen hizkuntza gutxiesten duena ez da berea behar bezala maitatzeko gai (...) Euskararen arazoa ez da euskara duindu nahian ari garenon kontua bakarrik.

ANJEL LERTXUNDI

Euskara eta nazionalismoa banandu, bai, baina nazionalistek euskarari uko egin gabe, alegia, besteek bereganatu behar dute euskara (...) Elebitasunaren aldeko tolerante ziniko asko dago ulertu nahi ez duena ezin dela gizarte elebidunik sortu hiritar elebidunik gabe.

RAMON SAIZARBITORIA

Horregatik dabil bizkor gaztelera eta makal euskara: jendeak berealdiko gauza pila egiten dituelako euskararen alde, salbu eta beharrezkoa den bakarra: hitz egin.

BERNARDO ATXAGA

AURKIBIDEA

HITZAURREAK

Miren Azkarate	II
Patxi Baztarrika	13

HIZKUNTZA POLITIKA AURRERA BEGIRA. 2005-2009

1. Gogoetarako abiapuntuak	17
2. Jardunbide nagusiak	43

ERANSKINA: EGOERA SOZIOLOGIA

0. Sarrera	61
1. Euskal gizartearen ezaugarri nagusiak	61
2. Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren ezaugarri nagusiak	62
3. Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera soziolinguistikoa	65

HITZAURREA

Miren Azkarate

Kultura sailburua

EUSKARA BIZIBERRITZEKO AHALEGIN HANDIAK egin dituzte herri-aginteeek eta gizar-teak azken hogeita bost urte hauetan. Euskal Autonomia Erkidegoan euskarak laurogeiko hamarraldian zuen egoera gaurkoarekin alderatuz gero, nabarmena da aurrerabide handia izan duela ordutik hona. Aldaketa nabarietako bat hiztunen kopuruan izandako hazkuntza da: euskara dakigun herritarrok bostetik bat izatetik hirutik bat izatera pasatu gara. Gainera, proportzio hori arrunt handitzen da gazteen artean, eta horrek berebiziko garrantzia du etorkizunari begira.

Euskarak esparru eta maila berriak irabazi ditu eta euskararen erabilera hedatzen ari da etxeetan, gizartean, komunikabideetan, administrazioan, merkataritzan, lan munduan eta abarretan. Baina erabileraren hazkuntza hori ez da izaten ari ezagupenaren adinakoa. Gure gizartea benetan elebidun izatea nahi badugu, beraz, ezinbestekoa izango da euskararen erabileran aurre-
rapauso sendoak ematen jarraitzea.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak, hain zuzen ere, lehentasunezko-tzat jo zuen euskararen erabilera soziala sustatzea, euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioa bermatzearekin eta euskararen kalitatea zaintzearekin batera.

Biziberritze Plan Nagusiak sei urteko ibilbidea egina duelarik, une egokia da egindakoaz eta eginkizun dugunaz gogoeta egiteko. Izan ere, Euskararen Legea lagun hizkuntza-politikaren arloan egindako bidea oparoa izan den arren, urrun gaude normaltasuna lortzetik, euskararen egoera diglosikoa baita oraindik. Beraz, egindakoa sendotzen eta bermatzen asmatu behar dugu, horretan ongi oinarritu eta aurrerajauzi egokia eman ahal izateko.

Dokumentu honetan aurkezten ditugun lan-ildoek datozen urteotan hizkuntza politikan jarraituko dugun norabide nagusia erakutsi nahi dute. Bertan esaten den bezala, erabileraren aldeko dema honetan gizarte osoaren inplikazioa beharko dugu. Horregatik, hizkuntza normalkuntzaren inguruan elkarrizketa sozial eta politiko etengabea bultzatzea proposatzen dugu. Elkarrizketa lasaia, irekia, kritikoa, aurreiritzirik gabekoa, gardena, zintzoa. Euskarak ahalik eta adostasun sozialik zabalena behar eta merezi duelako. Horretan sinesten dugulako. Ondoren aurkezten ditugun gogoeta hauek, beraz, elkarrizketa hori bultzatzeko abiapuntu egokia izatea nahi genuke. Itxaropen horrekin eta euskararen alde dugun konpromiso irmoa berretsiz plazaratzen ditugu.

HITZAURREA

Patxi Baztarrika

Hizkuntza Politikarako sailburuordea

EUSKO JAURLARITZAKO HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK gizartearen aurrean legealdi honetarako hartzen duen konpromisoa jaso nahi du dokumentu honek.

Euskara berreskuratzeko bidean jorratu nahi dugun hizkuntza politikaren ildo, oinarri eta jarraibide nagusiak eman nahi ditu ezagutzera.

Dokumentu irekia da, kritikarako eta hobetzeko jendaurrean jarria, herritarren, euskara elkartearen, erakunde sozial eta politikoen eta, oro har, gizartearen proposamen eta iradokizunekin eguneratua izan daitekeena.

Hizkuntza politika diseinatzea eta garatzea herri-aginteen erantzukizuna da eta erantzukizun horri heltzeko Sailburuordetza honen borondatea eta konpromisoa agertu nahi ditu dokumentuak. Dugun oinarritzko legeriaz baliatuta, euskara biziberritzeko prozesuan aurrera egiteko bide berriak eta seguruak zabaldu nahi ditu. Bizkor aldatzen ari den gure gizarte honek egunero jartzen dizkigun erronka berriei erantzuteko helburua dute alorrez alor proposatzen diren plan, neurri eta ekinbide guztiok.

Euskara berreskuratzeko eta euskara gizartean erabat normalizatzeko eginbehar honetan, ordea, elkarren osagarri dira herri-aginteak eta gizartearen ekimena. Hizkuntzen biziraupenerako ezinbesteko giltza, azken batean, beti baitute hizkuntza horretako hiztunek. Legeak, dekretuak, planak... denak dira beharrezkoak hizkuntza minorizatuaren egoerari aurre egiteko; are beharrezkoagoa da, ordea, hiztunen borondatea, hiztunen jarrera, hiztunen konpromisoa. Beraz, elkarlanerako deia ere egin nahi dugu dokumentu honetatik abiatuta. Euskararekin konprometiturik dauden herritar, talde, elkarte, erakunde, enpresa eta abarrekin elkarlanean aritu nahi dugu.

Izan ere gaurko belaunaldiok egiten dugunaren mendean egongo da, hein handi batean, euskararen etorkizuna. Horregatik, ahal den hizkuntza politika eraginkorrena gauzatu nahi genuke, joandako urte hauetan urratutako bideari heldu eta, aurrera begira, jauzi luze bezain sendoa egiteko. Prest gaudede, hortaz, gaurtik bertatik hasita, horretan lagun dezaketen iradokizun eta proposamen guztiak hartzeko.

HIZKUNTZA POLITIKA AURRERA BEGIRA

**Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren
2005-2009 egitasmoa**

I. GOGOETARAKO ABIAPUNTUAK

IRAUPENA ETA HAZKUNTZA SEGURTATZEKO BEHAR ADINAKO TOKIA: horretan laburbildu zuen Koldo Mitxelena maisuak, ohiko argitasunez, euskararentzat etorkizun oparoa lortze aldera urratu beharreko bidea. Toki horren bila urrats ugari eman izan da, oso bereziki –eta inoiz ez bezalako indarrez eman ere– 1979ko Autonomi Estatutuak euskararen ofizialtasuna aitortu zuenetik, eta 1982an onartu izan zen Euskararen Legea makulu harturik.

Azken urteotan indar eta tresna ugari jarri da euskararen alde, inoiz ez bezalako neurrian jarri ere; besteak beste, erakunde politikoak, lege-araudia, aurrekontu publikoak, plangintza eta egitura berezituak, gizarte-ekimenaren ekarria ahaztu gabe. Horri guztiorri esker izugarritzko ahalegina egin da, eta, askotan bestelakorik entzuten bada ere, begien bistakoa da ahalegin ikaragarri horren eskutik aldaketa sakonak gertatu direla urteotan gure gizartearen hizkuntz egoeran. Horren adierazle garbienetariko batzuk dira dokumentu honen eranskinean jasotzen diren datuak (ikus eranskina).

Besterik da ahalegin handi horrek euskararen erabilerari dagokionez espero zitezkeen eta eman beharko lituzkeen emaitzak eman ote dituen aztertzea eta horretaz gogoeta egitea, egin beharrekoa ezbairik gabe. Orain lehen baino gehiago egiten da euskaraz, eta lehen egiten ez zen tokietan ere egiten da orain, baina ezagutzaren eta erabileraren arteko jauziaren tamainak erakusten du nahiaren eta ezinaren arteko borroka areagotzen ari dela.

Ezagueraren eta erabileraren hazkunderen arteko parekotasun falta hori ulertzeko hainbat arrazoi aipatu behar dira. Alde batetik, pertsona elebidunen tipologian aldaketa nabarmenak gertatu dira azken urteotan. Duela gutxi arte, euskal hiztunen artean nagusi ziren ama-hizkuntza edo lehen hizkuntza eus-

kara zutenak eta ingurune euskaldunean bizi zirenak. Egun, berriz, pertsona elebidunen artean, eta batez ere gazteen artean, gero eta gehiago dira lehen hizkuntza euskara izan ez dutenak, hau da, etxean gaztelera ikasi dutenak berez edota gaztelera eta euskara batera ikasi dituztenak. Orobat, gaurko pertsona elebidunen bi heren hirietan edo herri handietan bizi dira, hau da, eguneroko bizimodua euskaraz naturaltasun osoz egiteko egokiera txikiagoa eskaintzen dien inguruneetan. Psikolinguistikaren eta soziolinguistikaren ikuspegietatik begiratuta, bi faktore nagusi aipatu ohi dira hizkuntzaren erabileran gehien eragiten dutenen artean: hiztunak hizkuntza horretan komunikatzeko duen gaitasun erlatiboa eta hiztunak gertuko ingurune naturalean duen hizkuntz komunitatearen dentsitatea. Horrek azalduko luke, hortaz, euskararen erabilera batez ere esparru berrietan eta formaletan areagotu dela nabarmen, baina hazkunde apalagoa izan duela familiaren, lagunartean eta lanaren esparruetan. Euskara bereganatzen ari diren hiztun berriei, euskara etxean ez baizik eskolan ikasten ari diren gazte elebidun berriei harreman sare euskaldunak eskaini behar zaizkie beren hizkuntz gaitasun hori sendotu dezaten eta bizitzan normaltasunez euskara erabiltzerik izan dezaten. Eta horretarako, orobat, beharrezkoa da euskal hiztunon artean euskararen erabileraren aldeko jarrerak eta joerak orokortzea, atxikimendu pasiboetatik jarrera aktiboetara igarotzea, euskaraz jarduteko ohiturak hedatzea.

Esan nahi da, beraz, asko dela egin duguna eta egin behar zena egin dugula, orain dela hogeita bost urteko hizkuntz egoerak eta egungoak ez baitute zerikusirik. Ibilbide honetan badira, noski, argi-ilunak, baina argiuneak gailentzen zaizkie, nabarmen, ilunguneei. Euskarari eman zaion estatus juridikoa eta euskararen normalizaziorako landu diren hizkuntz politikak ego-kiak izan dira, eta horren lekuko ditugu emaitzak. Baina asko da eginkizun daukaguna ere, luzea baita egiteko daukagun bidea. Gizarte baten baitako hizkuntz prozesuak ez dira goizetik gauera burutzekoak, eta gure gizartean elebitasun orekatu batera iristeko prozesua ere luzea izango da. Bide horretan aurrez aurre agerian dugun hurrengo auzia erabilerarena da, eta horretara bideratu beharko dira aurrekontuak, horretara bultzatu beharko da elkar-lana, horretara jarri beharko ditugu erreferentzia eredugarriak, etxetik hasita –administratziotik, Jaurlearitziatik bertatik–. Pixkanaka, baina etengabe, erabi-

lera handitzea (etxean, kalean, administrazioan, lan-munduan, aisialdian) eta kalitatea gordetzea: horra euskararen aurrerabiderako oinarrizko helburuak.

GAURKO EGOERA EZIN DA ULERTU IRAGANA KONTUAN HARTU GABE. Egindako ahalegin ikaragarriaren ondoren, euskarak gure gizartean gaur oraindik ere dituen gabezia eta mugak ulertuko baditugu, nahitaezkoa da gogora ekartzea urte luzetan nozitu behar izan ditugun elebakartasun ofiziala eta neurri ezberdinetako hizkuntz zapalkuntza, hala nola euskararekiko aitopen sozial urria.

Hizkuntz kontuetatik harantzago, fenomeno sozialak oro har kontuan hartzen baditugu, erraz ulertzekoa dirudi elkarbizitza ahalik zuzenena helburu duen politika batek ezin duela “gizartea gaur nolako, politika ere halako” neurriarekin ez etsi ez konformatu. Aintzat hartu beharra dauka iragan jakin baten ondorio dela gaurko gizartea, baina ez iraganeko erasoak gaurko ahulezien estalgarri gisa baliatzeko, ezta iraganeko bidegabekeriaren ordainez begia begi truk gisako kitapen ezinezkoak bilatzeko ere. Iragana iragan da, eta ez dago atzera bueltarik.

Baina gizarte jakin baten elkarbizitzan dauden defizit asko iraganak hain ditu errotu, indartu eta sakondu, non askotan ez baikara konturatu ere egiten defizitak direla; eta defizit horiek egunotaraino iritsi zaizkigu eta gaurko gizartean eragiten dute, ia oharkabean eta isilik, baina etengabe. Defizit askok normaltasunaren bermea hartzen du, injustiziaren biktima denak sarritan normaltzat eta zuzentzat jotzeraino hartu ere. Esate baterako: gizonezkoen neurria moldatu eta garatu den historiak mendean hartu zuen emakumea eta normaltzat jo zuen emakumeen mendekotasun hori; denbora eta ahalegin asko egiten ari gara eta egin beharko dugu mendez mende eratutako mentalitate horren araberako jokabide, iritzi, ohitura eta topikoak –elkarrekin bizitzeko eredu guztiz egituratua– galarazteko. Gauza bera ez bada ere, antzeko zerbait esan liteke hizkuntzen arteko harremanei buruz ere: botereak hizkuntza bati emandako botereak, eta horren ondorioz lortutako hegemoniak eta sonak bere inguruko hizkuntzak gutxietsi eta gutxitu egin ditu historian zehar, askotan gutxietsien kontrako legezko neurriak erabiliz, eta aurreiritzi,

topiko gaizto eta zuzentasunezkozkat hartzen diren jokabide bidegabeak erroztuz beti ere.

Hizkuntza gutxietsi eta gutxituen kontrako legezko neurriak desagertzen direnean ez da, ordea, injustizia desagertzen, ezta hizkuntza horien aldeko lege-arauak onartzen direnean ere. Aurreiritziek, topiko gaiztoek eta zuzentzat jotzen diren jokabide injustuek hain segitzen dute errotuta eta lanean non ez baitira ikusi ere egiten. Hizkuntza gutxituak egitate entzunezin halako batzuk dira hizkuntza hegemonikoarentzat, eta hizkuntza gutxituetan lortutako emaitza kulturalak, berriz, ez ikusi eta ez entzun, estimatzen ez diren huskeria halako batzuk. Egiten ari garena ez da deskribapen ezkor puztu bat, Euskal Herrian bizi dugun egoera linguistikoaren ispiluak egunero islatzen du diogun hori. Hain da handia eta begi-bistakoa gaztelaniaz bizi den komunitatearen eta euskararen munduaren arteko etena!

Horrela, bada, hiztun komunitate hegemonikoak hiztun gutxituaren munduaz duen ezagutza falta hori da, agian eta elkarbizitzari dagokionez, euskal komunitateak bizi duen defizitik latz mingarriena. Egunerokoa da errealitate garratz hori hedabideetan, unibertsitatean, euskaraz garatzen ez den kulturgintzan, ekonomiaren edo industriaren munduan. Salbuespenak salbuespen, hizkuntza hegemonikoan ari denak ez dauka hizkuntza gutxitukoaren berririk, ez du hartarako jakin-minik, eta hizkuntza gutxitua nor izan nahian haste hutsa erlakaizten bat bezain desatsegin eta deseroso gertatzen zaio erdal komunitateari.

Horra, bada, iraganean erroturik egunotaraino iritsi eta berean, gero eta indartsuago, jarraitzen duen defizit eta aurreiritzi bat. Horregatik guztiagatik, uste dugu euskal politika linguistikoaren lan premiazkoenetako bat pedagogikoa dela: hizkuntza hegemonikoko hiztunen aurreiritzi eta topiko galgarriak deserrotzen ahalegindu behar du eta hizkuntza gutxituko hiztunen auto-estimua indartzen saiatu, beti ere injustiziarik gabeko elkarbizitza lortzeko bidea eginez.

GURE HIZKUNTZ ARAZOEN ITURRIA EZ DA BAT ETA BAKARRA. Harro egon behar dugu euskaldunok euskara gorde eta garatze aldera urtetan eta urtetan egindakoz, oso bereziki azken hogeita bost urteotan egindakoz.

Badugu esker ona nori eman ere: prozesu horretako emaitzak ikusita, inor gutxietsi gabe esan litekeelakoan gaude, gizarte osoaren aparteko aitopena merezi dutela etxean ikasi ez eta euskaltegien eskutik ahalegin pertsonal itzelari esker bere burua euskaldundu dutenek: euskaldun berriek.

Nolanahi ere den, egindakoa asko bada ere, eta egindakoa egiteko iraganak utzi dizkigun kargak handiak badira ere (aurreko atalean egin dugu horri buruzko aipamena), oker ibiliko ginatete pentsatuko bagenu gure hizkuntz eskasia eta gorabehera guztien iturria iraganeko “zapalkuntza” dela, edo pentsatuko bagenu eskuartean dugun legeria dela euskararen garapen biziago baterako daukagun muga. Geure kontzientzien lasaigarri baino ez dira horrelako ikusmoldeak, gure irudiko behinik behin. Esan gabe doa, gainera, norberaren mugen aurrean itsu, eta gabezia guztien erantzukizuna hirugarren batzuen bizkar sistematikoki botatzean oinarritzen den jokabideak ez diola batere mesederik egiten euskarari.

Onartu beharko genuke, inolako arazorik gabe onartu ere, herritarrengandik jasotzen duen leialtasuna izaki hizkuntza baten biziraupenerako elikagai osasungarrienetakoa, euskaldun askok, zabar eta utzikeria handiz tratatu duela euskara. Euskaldunon arduragabekeria da euskararen etsairik handiena. Zerbaitek galaraz badezake guztiz hizkuntza bat, zerbait baldin bada hilgarria hizkuntzarentzat, hiltunen arduragabekeria edo axolagabekeria da. Eta euskaldunok onartu behar dugu gutariko asko ez dela (ez garela) oso fin ibili kontu honetan, eta gaur ere sendotu beharrean dugula euskararekiko leialtasuna.

Hori da, beraz, euskararen gaurko mugarik garrantzizkoena. Baina ez da bakarra. Geure baitakoak ditugu euskararen erabilera makaltzen duten beste faktore hauek ere: euskaldun askoren hizkuntz gaitasun maila apala, erdaraz jarduteko ohitura, prestakuntza profesionala erdaraz jaso izana, euskararen indar sozial mugatua, gure hizkuntz jarreraren eta jokabidearen arteko aldea (gogoratu Mitxelenaren esaldi hura: “euskarak bihotz gutxiago eta lan gehiago behar du”; edo Atxagarena beste hau: “jendeak berealdiko

gauza pila egiten du euskararen alde, salbu eta beharrezkoa den bakarra: hitz egitea”). Faktore horien guztien ondoan bada beste bat nabarmendu nahi duguna: euskararen garapenerako nahitaezkoa den adostasun politiko-soziala ez da behar bestekoa, urria da, eta, urteotan sendotu ordez, murriztu egin da, gainera.

Euskararen inguruko ideologizazioak ere kaltea dakarkio gure hizkuntzaren normalizazioari. Euskal mundua askotarikoa da, baina bere irudiak ez du hori erakusten, bere irudia ia-ia kolore bakarrekoa baita. Eta horretan erantzukizuna ez da euskara indarkeriarekin eta bere munduarekin lotuta lotsagabeki azaldu nahi izan dutenena bakarrik, baita euskararen mundutik bertatik eta joera politiko jakin batetik irudi hori ematen saiatu direnena ere. Beste hitzetan esanda, euskararen ideologizazioak ertz ugari ditu, euskara monopolio gisa bere egin dutenena, alde batetik, eta euskara *besteen* (“abertzaleen”) arazotzat utzi eta abertzaletasunaren aurkako arma politikotzat erabiltzen dutenena, bestetik.

Geure baitako mugez hitz egiterakoan ezin ahaztu, ezta ere, euskararen irudi sozialari dagokionean ere eboluzio guztiek ez dutela onera egin. Halatan, frankismo bukaerako urteetan, esate batera, jarrera aurrerakoi eta abangoardiakoekin identifikatzen zen euskararen mundua. Frankismo garaia ezagutu ez eta, euskararekiko lotura konpromiso ideologikoetatik urruti, oso modu naturalean hartu duten belaunaldi berrikoek urte haietan ikusten zen moduan ikusten ote dute hori?

ESKUBIDEEN ETA AUKEREN BERDINTASUNA JOMUGA DUEN HIZKUNTZ POLITIKA. Justiziak berdintasuna bilatzen du. Hizkuntz politika zuzen batek ere eskubideen eta aukeren berdintasuna bilatu behar luke historiak galbahe eta neurri desberdinekin jokatu duen alorretan.

Hizkuntz kontuetan ere helburu nagusia elkarbizitza eta gizarte-kohesioa izanik, hiztunon borondatea da lege nagusia –eta borondate hori errespetarazi behar du hizkuntz politika batek–, baina hiztunen borondatea ez da ez xaloa, ez aurreiritzirik gabea, hiztun baten borondateak ezin ditu,

besterik gabe eta askatasunaren izenean, beste hizkuntza bateko hiztunaren eskubideak mendean hartu.

Horregatik, oso garbi izanik ere zerbait egiteko (edo ez egiteko) askatasunez jokatzeari ziurtatu behar zaiola gizabanakoaren borondateari –eta askatasun hori bilatu behar duela politikak–, auzi linguistikoetan ezin da, besterik gabe, hiztunen borondatea argudiatu eta justizia alboratu; ez, behintzat, borondate hori aurrera eramateko orduan hizkuntza bateko eta besteko hiztunek ez badute aukera-berdintasunik.

Beste kantoietatik ere begira dakioke auziari: euskal hiztunak bi hizkuntzen ezagutza eskaintzen dio euskal bizilagunen arteko elkarbizitzari. Elebakarrak, bat. Ez dago –ez legoke– gehiago esan beharrik. Baina esan beharra dago, gehienetan atzekoz aurrera jokatzen baitu hizkuntza hegemonikoak mendez mende ezarri duen logikak: bi hizkuntzak eskaintzen dituenari obligazioak bikoiztu egiten zaizkio; eskubideak, ordea, erdibitu. Eta elebakartasunak logika hori inposatzen duen bitartean –elebakarrak ez baitu beste hizkuntza ezagutzen–, elebitasuna egokitu egiten da desegokitasun horretara, egokitu egiten da elebakarraren logikara. Halatan, eta hizkuntza hegemonikoak ezarritako logikaren haritik tiraka, hegemonikoa indartzen joango da hizkuntza gutxituarekin duen harremanean; gutxitua, berriz, ahultzen.

Hizkuntza hegemonikoak eragindako logikak hori du bere alde: elebakarraren egoera normal bakartzat harturik, hizkuntzen arteko harremanetan gertatzen diren hainbat alde gaizto elkarbizitzaren arau bihurtzen ditu; hainbat alde on, berriz, elkarbizitzaren kontraktatzat jotzen.

Horregatik guztiagatik uste dugu hizkuntz politikaren egiteko bat dela logika horrek eragiten duen desoreka seinalatzea, eta baita hori guztia gainditzeko bidea markatzea ere. Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzak ezagutzeko baliabideak jartzeaz gainera, beste pauso bat ere eman behar du hizkuntz politikak, bere egitekoa baita justizian eta askatasunean oinarritutako hizkuntzen arteko elkarbizitza benetakoa bilatzea.

KOMUNIKAZIOAREN PREMIA UKAEZINA DA aipaturiko lanak arrakasta izan dezan. Baina hona hizkuntzalaritzak *komunikazio* hitzari ematen dion definizioa: “igorleak hartzaileari, biek ezagutzen duten kodea erabiliz, mezu bat bidaltzea”. Horrek esan nahi du elebakarraren hizkuntza dela komunikaziorako tresna bakarra? Praktikan, halaxe da. Baina horrek esan nahi du elebakarra elebidunaren eremu guztietako kezkek, eguneroko errealitatea eta sorkuntzalanak ezagutzeko egokieran dagoela? Ez, ez dago. Aitzitik, elebiduna gai da bi hiztun-komunitateen kezkek, eguneroko errealitatea eta sorkuntzalanak ezagutzeko. Hori da aldea. Hori da elebidunak –elebakarrak ez bezala– elkarbizitzari eskaintzen diona.

Anjel Lertxundik zioen bezala, “euskararen arazoa ez da euskara duindu nahian ari garenon kontua bakarrik”. Komunikazioa eta elkarbizitza joan-etorriko fenomenoak badira, erdal komunitateak entzun eta ezagutu behar ditu euskal komunitatearen eguneroko bizipenak, kezkek eta lorpenak. *Beste*a asmatu baino, *beste*a ezagutu egin behar da; horretarako, beharrezkoak dira interesa, jakin-mina, hurbilketa. Hala egiten ez bada, komunitate bateko parte batek beste parte inexistenziaren eremura baztertzen du. Eta kontu jakina da gure antzekoen kontra egin dezakegun bekaturik larriena, mespretxua bera baino larriagoa, antzekoarenganako ezaxolakeria dela.

Gaztelaniaz bizi den komunitatearen eta euskararen munduaren arteko etena pixkanaka desagerrarazteko ahalegin berezia egiteko premian gara, ezbairik gabe. Bi munduok ezin dugu ibaiaren ertz banatan kokatuta jarraitu. Egoera horretan setatuz gero euskarak ez du ezer irabazteko, eta guztia galtzeko. Eginahalak eta bi egin beharko ditugu erdaldunak ohar daitezen “mundu oso bat” ari direla galtzen euskararik ez jakiteagatik. Zubigintza eraginkor bati ekin beharra dago.

KALITATEAREN ETA KANTITATEAREN ARTEKO LEHIA asko eta askotan izan dugu mintzagai. Euskara batuaren bilakabidean, erabilera jasoetarako hizkera garatzea lortu dugu. Gure zorionerako. Harro egon beharko genuke azkeneko hogeita hamar urteotan uste genuen baino gehiago aurreratu dugulako. Aurrerago ere

egin genezakeen. Baina botila erdi hutsaren edo erdi betearen debate antzua baino haratago eginez, uste dugu egin ditugun aurrera pauso handien mezu positibo hori zor diogula gizarteari. Ia hutsetik abiatu, hizkera jasoa jabe egin gara oso denbora laburrean, eta hizkera jaso horrek kalitatezko egitura du administrazioan, hedabideetan, bizitza akademikoan, literaturan eta itzul-pengintzan.

Hizkera jaso aipatu dugu bizpahiru aldiz. Hizkera jaso eta hizkera estandarra kontu bera al dira, gurean behintzat? Ez dakigu, eta badira gu baino adituagoak hori erabakitzeko. Galdera hor dago.

Nolanahi ere den, gaude zubiak eraiki behar ditugula normalkuntzaren bidean lortutako emaitzen eta kaleko hizkeraren artean, gaude ahaleginak egin behar ditugula etenik –edo eten handiegirik– gerta ez dadin. Hizkuntza hegemonikoek kaleko erabileran eragiten duten itzal luzearen eta hizkuntza hegemonikoen eragin horretatik libratu nahi lukeen estandarizazioaren artekoa da lehia. Lehia horretan, ordea, ez ote lioke orain arte baino begirune gehixeago eskaini behar eskolatik pasatu gabeko euskaldun petoari? Ohar gaitezen estandarizazioak belaunaldi eskolatuen euskara soilik estandarizatu duela, eta eskolatu gabek zailtasunak dituela, batez ere hiztegiari dagokionez, jardun estandarizatu jasotzeko.

Aldi berean, estandarizazioak arreta gehiago eskaini behar lioke kaleko hizkerak euskarari aurkitzen ez, eta hegemonikoan bilatzen duenari: noranahiko adierazkortasunari. Planteatzen ari garena ez da inondik ere garrantzia kentzea lexiko batu noranahikoari edo hizkuntzaren hainbat aldi formalen normalizazioari, ezta euskarak administrazioan, bizitza akademikoan edo hedabideetan eduki behar duen presentziari ere.

Ahalegin berezia egin beharra dugu euskara presente egon dadin katean, hain zuzen hizkuntza batek arnasa hartzen duen eremu naturalean. Baina euskarak katean arnasa hartuko badu, kaleko euskarak arnasa duelako izango da. Agian koska honetan (ere) bilatu beharko genituzke hainbat euskal gaztek, bizitza akademiko osoa euskaraz egin eta gero, euskara bazter uztearen arrazoiak.

DISKURTSOEI DAGOKIENEZ, ZAHARRAK BERRI ditugu (neurri batean) gurean. Berri-tasun itxurarekin eta ustezko modernitatearen izenean, oso zaharkituak eta integrazioaren aurkakoak diren diskurtsoak ari dira, berriro ere, gure plaza-zako toki nagusia beretzat hartzen. Gogora dezagun, merezi du eta, 80ko hamarkadan nola hemen, Euskal Herrian, indartsu plazaratu izan zen euskal elebakartasunaren aldeko teoria. Orduan, euskararen etorkizuna segurtatzeko ezinbesteko errezetatzat defendatu zuten zenbaitzuek euskal lurralde elebakarra behar zela eta –Konstituzioak gaztelaniari demaion tratamendua kopiatuz– euskararen ezagutza herritar guztien obligazio izan beharko lukeela. Hala, hori ziotenek, euskal lurralde elebakarraren helburua ikurtzat hartuta, 10/82 Euskararen Legearen aurka egin zuten. Diskurtso haren parez pare elebitasunaren aldeko diskurtso ezberdinak formulatu ziren. Ez zen inor, teoriarik behinik behin, erdal elebakartasunaren aldeko azaldu.

Egindako bideari esker, eta, oso bereziki, bai euskaldun berriek egindako ahaleginari esker bai seme-alabek euskara ikas dezaten neurriak hartu dituzten guraso erdaldunei esker, orduan baino “elebidunagoa” da gure gizartea. Baina, paradoxikoa badirudi ere, 1982 inguruko urteetan ez bezala, erdal elebakartasunaren aldeko diskurtsoa ari da orain gure artean zabal-tzen. Diskurtso edo ikusmolde horrek eragozpenak baino ez dizkio ikusten Euskararen Legeari berari, eragozpenak lege horren garapenerako urteotan eratu den arkitektura legalari, eragozpenak euskararen aldeko ekintza positiboan oinarrituriko ekimenei. Diskurtso horri aurre egin behar zaiolakoan gaude.

Erdal elebakartasuna lehen ez bezala orain aldarrikatu eta defendatzerakoan gutxienez hiru argumentu erabiltzen ditu diskurtso horrek: eraginkortasuna (Suitzako Konfederazioa edo Belgika edo Austria baino eraginkorrago ote Portugal elebakarra?), unibertsaltasuna (Lertxundik askotan salatu du zenbait uniformetasunarekin nahasten duela unibertsaltasuna: kasu honetan ere, kontua ez ote partikularitasunari kontrajartzen ez zaion unibertsaltasunaren izenean uniformetasuna defendatzen dutela?) eta eskubide indibidualak (aukera-berdintasunik ez denean –eta gurean oraindik ez dugu halakorik–, bidezkoa ote da indartsuenaren eskubide indibidualen izenean hizkuntza gutxituaz baliatu nahi dutenen eskubideak itolarrian jartzea?).

“Erdal zilborzaletasun” horrek arazo gisa ikusten ditu hizkuntzak, arazo gisa eleaniztasuna, arazo gisa elebitasuna eta euskara. Ikuskera zaharkitu horren aurrean, aukera eta aberastasun gisa aldarrikatu behar ditugu hizkuntzak, aberastasun eta aukera gisa, beraz, euskara eta elebitasuna. Aukera eta aberastasun elkarbizarako eta gizarte-kohesiorako. Ideologizazio orotatik kanpo eta taldekeria ororen ginetik, beti ere euskararen kultur eta komunikazio balioa, hala nola integrazio sozialerako balioa azpimarratuz. “Erdal zilborzaletasunaren” aurrean “euskal zilborzalekeria” jarri gabe, euskararentzat guztiz kaltegarria litzatekeelako eta ez litzatekeelako on elkarbizarako. Asmatu behar dugu zinez konbentziturik gauden kontu bat gizarteratzen: ustez eskubide eta askatasun indibidualak defendatzen dituen “erdal zilborzaletasunak”, ustez modernitatearen ispilu den jarrera horrek, egiazki eta praktikan ez dizkiola liskarra eta arazoak baino ekartzen euskal gizartearen helburu guztien artean preziatuena den helburuari: kohesio sozialerako eta elkarbizitza sendo eta askotarikoa hezurramitzeko helburuari.

Kontua da, beraz, euskararekiko eta euskal hiztunaren hizkuntz aukerarekiko errespetuzko praktikak ezarri eta zokorabideak anakronismotzat agererraraztea. Neurri honek naturaltasun simetrikoa eskatzen du beste hizkuntzarekiko. Mitxelenak idatzia utzi zuen harako “erdara ere hemengoa da” hark hitzez hitz esaten duenaz gain gogorazten digu euskarak *euskaldun* egiten gaituela, baina ez *ezerdaldun*, are gutxiago *antierdaldun*, euskararik ezak inor *ezeuskaldun* edo *antieuskaldun* egiten ez duen bezala. Esaldi hark gogorazten digu, halaber, euskararen hautua egiteak ez gaituela beste hizkuntzak alboratzera behartzen, euskararen aldeko lana ez baita beste hizkuntzen aurkako jarduna. Nolanahi ere, zenbait diskurtso eta jarrera ikusita uste dugu, Mitxelena parafraseatuz esango genukeen “euskara ere hemengoa da” esaldiak hobeto laburbiltzen duela gaur egungo egoera (ez agian 80ko hamarkadako lehen urteetakoa) Mitxelenaren alderantzizkoak baino.

Horiek horrela, hizkuntz politika zuzen batek ez die beldurrik izan behar egoera linguistikoaren deskribapenari, deskribapenak ematen dituen datuei eta horren guztiaren emaitzak zehatz izendatzeari ere. Eta azkeneko urteotan diglosia hitzak garai bateko erabilerarik ez badu ere, ez dugu uste asmatu edo aurkitu denik hitz egokiagoa gure hizkuntzen egoera deskribatzeko. Di-

glosia kontzeptuaren zentzurik hedatuenaz –hiztegiek jasotzen dutenaz– ari gara: Autonomia Erkidegoan euskara hizkuntza ofiziala izanagatik, euskara ez da hizkuntza ofiziala bere eremu naturalean. Eta ofiziala den eremuan ere, onartu diren lege guztien eragina ukaezina dela aitorturik ere, euskararen eta gaztelaniaren arteko egoerak diglosikoa izaten segitzen du, hau da, egunero praktikan gaztelania da erabilera jasoetarako hizkuntza, hala nola gure politikan, hedabideetan, oro har bizitza publikoan.

Hizkuntza hegemonikoaren eragin eta indarrak hizkuntza menekoarengan eragiten duen lurtea noranahikoa da: hizkuntza menekoaren egituran eragiten du (fonetika, lexikoa, esapideak...); bizitza sozialean (hizkuntzen funtzio-banaketa, eskubideak...); hiztunen psikologian (botere-ahuldade harremana); bizitza ekonomikoan (bataren eta bestearen balioari buruzko usteak, eta uste horien araberrako funtzionamendua, publizitatearen banaketan adibidez); bizitza kulturean (hizkuntza baten eta bestearen unibertsaltasunari buruzko ikuspegia; zinea bezalako produktu kulturalen ekoizpen edo banaketa...).

“EUSKARA GUZTIONA DA” aldarrikatzen dugunean adierazi nahi duguna (hots, ez dela inoren monopolio, ez dela abertzaleena bakarrik, ez eta euskaraz daki-tenena bakarrik ere, guztiena dela, eta, beraz, inork ez liokeela bizkar eman behar, erdaldunek ere zaindu beharreko ondarea dela, alegia), hori dena ez dator bat, praktikan, erdaldunek erdaldun jarraitzearen aldeko inertiarekin, ezta euskaldunek euskaraz bizi ahal izateko bilatzen dituzten oztupoekin ere. Arazoa ez da, seguru asko, leloarena, baizik eta leloak, praktikan, baliagarria izateko duen alde zurretiko baldintzarena: marka politikoen gainetik eraiki beharreko diskurtso ideologiko bat eskatzen du, ez nazionala, ezta autonomikoa ere, baizik eta hizkuntz ekologia moderno baten oinarrietan tinkotua. Guztiek euskara kultur eta komunikazio baliotzat eta ikuspegi integratzaile batetik hartzea eskatzen du, hala nola euskal gizartearen identitatearen askotarikotasuna bermatu eta garatzeko behar-beharrezko faktoretzat. Falta dena programa komunitario bat da, identitate soilari atxikia

izango ez dena, baina identitateaz diskurtso egituratzaile eta integratzailea bideratuko duena.

Kontua ez da, beraz, existitzen ez den unitate geopolitikorik sortzen ahalegintzea, euskararen aitzakian. Aitzitik, globalizazioaren beraren lanabesen bidez jokatu beharra dago apustua.

Hori horrela, hona kosta ahala kosta irabazi beharreko bi borroka: espazio birtualarena (gehienbat garapen teknologikoaren eremuan jokutzen dena), eta mundu mailako komunikazioarena eta presentziarena. Sare eta aliatu egokiak bilatu beharra dago, Europan aurrenik eta mundu zabalean gero, barruko prestigioaren gerra kanpoko borroka-tokietan irabazten laguntzeko.

TEKNOLOGIA BERRIEN MUNDUAZ. Gaur berebiziko arreta eskatzen duena teknologia berrien mundua da. Hasiera-hasieratik aitortu nahi genuke hainbat eta hainbat inizatiba pribatuk, laguntza publikoarekin zein laguntzarik gabe, egin duten lana euskara teknologia berrietara egokitzen eta, batez ere, Internet-era eramaten. Etorkizuna dugu hor jokoan, sarritan entzun dugun kontua da. Egon beharra dugu teknologia berrien lehian, eta hiru argumentu nagusi ikusten ditugu premia hori nabarmentzeko.

Lehenik eta behin, euskaragatik beragatik egon behar dugu hor, ezin baitugu gure bizitzetan hain garrantzi handia hartu duen mundu horretan beste hizkuntzen maizter izan.

Bigarrenik, mundu horretan egoteak dituen ondorio ekonomiko begi-bistakoengatik: baliabide ekonomikoak behar izatetik etekin ekonomikoak ematen dituen aktibitate industrial bat izateko bidean doa euskara, eta bide horretan aurrera egingo badu, ezinbestekoa du teknologia berrien aldeko apustua.

Eta hirugarrenik: gero eta gehiago ikusten ari garenez, globalizazioaren eraginez ezer ere ez da jadanik lurraldetasun geografikoaren hesietara mugatzen. Internet dela medio, beste hizkuntzak ere gero eta neurri handiagoan dira gure hizkuntzak, eskura eta baliagarri baititugu. Euskara ere ez

da gure Erkidegoko ez eta Euskal Herriko lau hormetara mugatzen. Gureak ere, gure euskarak, gero eta ibilbide handi eta zabalagoak ditu eskura. Izan ere, inoiz pentsatuko ez genituen lotura eta harreman-aukerak eskaintzen dizkigu Internetek, denbora errealean eskaini ere. Denbora errealean egon gintezke konektatuta Reno-ko unibertsitateko euskal adararekin, Pragan irakasle dagoen hizkuntzalariarekin, Erasmus plangintzari esker Helsinkin ikastera joan zaigun ilobarekin, Australiako kanabera-industrian lan egiten ari den gure koadrilako lagunarekin. Denbora errealean egon litezke aipatutako horiek guztiak lotuta hemen gertatzen ari denarekin eta hemen egiten ari garenarekin. Ahantzi gabe, han eta hemen dagoenak, munduaren punta batean eta ondoko auzoan dagoenak, sare horretaz baliatzeko gai garen neurrian, eskura eduki ditzakeela hainbat eta hainbat produktu egoki euskaraz, haiek ekoizteko eta sarean jartzeko gai garen neurrian.

Ez dezagun ahantzi, ezta ere, gaur egun gazte asko, joan-etorri ekonomikoen eraginez, Euskal Herria uzten ari dela, Lizardiren harako “uztagun, aldikoz, Euskal Herria” poetiko hura guztiz erreal bihurturik. Horiek guztiek, eta gure diasporak berak ere, lurraldetasun geografikotik haratago identitateari euts diezaioten tresna biziki lagungarria izan liteke teknologia berriak euskararen garapenerako baliatzea.

EZ DIOGU BELDURRIK IZAN BEHAR DEBATEARI, ez egiten ari garen gauzen eta darraigun bidearen azterketari ere. Lan asko egiten ari baikara eta inizatiba asko jarrita baitaude abian, berebiziko arreta batez jokatu behar dugu eta beti kontuan izan, hipotesi moduan badarik ere, egiten ari garen guztia ez dela agian on, edo ez dela agian egokien, edo ez dela agian zuhurren. Eta kontuan izan behar dugu, halaber, agian ez garela egin behar litzatekeen guztia egiten ari. Bizi dugun egoeran, autokritikoak izan eta autokritika praktikatu beharra daukagu, baina ez zauria ozpinez erretzeko, ezta egiten dugun ororen inguruan halako susmo-egoera bat ezartzeko ere, ezta zalantza etsigarriak bazkatzeko ere. Nolanahi ere, uste osoan gaude behar-beharrezkoa dugula hitz

egitea euskararen arloan orain arte egindako bidez eta etorkizunaz lasai, askatasun osoan, euskalgintzaren barruan eta kanpoan.

Aipatu hausnarketa eraginkorra izango bada, askatasunean eta zintzasunean egin behar da, hots, euskararen munduaren diskurtsoa bat eta bera ez, baizik eta askotarikoa dela egiazki onartzeari darion askatasunean, eta euskararen etorkizunaz landako helbururik gabe, taldekeriarik gabe, alegia. Kritika eta autokritika uztartuz, hutsune eta hutsegite guztien erantzukizuna sistematikoki hirugarren baten bizkar botatzeko tentazioaren aurrean amore eman gabe.

Aurrerapausoak eta ekimen eraginkorrak ongi identifikatzearekin batera, beraz, aztergai izan behar ditugu hutsuneak eta hutsegiteak. Ez dugu uste kontua horrenbeste denik errezeta berrien bila abiatzea, mirakulu halako batzuen esperantzan. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian ezarritako helburuak eta markaturiko lan-ildoak tresna egokia izaten jarraitzen dutelakoan gaude. Baina, hain zuzen ere EBPN ebaluatzeko momentua heldu da, eta hori abagune aproposa gerta dakiguke hausnarketa honi bidea irekitzeko, beldurrik gabe. Normala denez, egin beharrekoa baita egiten ari garena hobeto egitea, gastatzen ditugun diruak hobeto gastatzea, oinarri eta printzipio nagusiek bere horretan jarraitzen badute ere lehentasunak berraztertu eta birdefinitzea, lan-ildoak birmoldatzea, eta, finean, hizkuntz politikari beste bultzada bat ematea, bide batez erakundeen arteko lankidetzeta eta agenteen arteko elkarlana sendotuz.

TRESNERIA EZ DA ARAZO, EZ OZTOPO, EGOKIA DERITZOGU ORO HAR. Nekez aurki daiteke orrazi-hortzik gabeko fenomeno sozialik. Hori horrela, hizkuntz normalkuntzako ezein prozesuk berezkoak ditu gorabeherak, eta euskararena ez da salbuespen. Gure gizarteak euskararen normalkuntza bidean nozitu dituen gorabehera, liskar eta arazoak aztertzerakoan, zenbaitek langintza honetara jarritako tresnerian bilatu nahi izan du ezintasunen iturburua. Zehatzago esanda: batzuek legeek eta arauak osatzen duten tresneria jo izan dute desegokitzat, 1982ko Euskararen Legea bera ere eragozpen ikusteraino. Ez da

hori gure iritzia. Urteotako emaitzei begirada bat ematea aski da Euskararen Legeak definitu eta babesturiko marko legalaren eskutik gertatu den jauziaren tamainaz jabetzeko. Eta Lege horren oinarriari so egitea ere aski da berorien gaurkotasanaz ohartzeko. Bada, beraz, behar beste arrazoia Euskararen Legearekin jarraitzeko, ahaztu gabe, gainera, zenbaitek planteatzen duen balizko aldaketa baterako egokia ote den momentua, politikagintzan arrazoa izatea ez baita aski, arrazoa errealitate bihurtu ahal izatea baizik.

Autonomi Estatutuak aldarrikaturiko euskararen ofizialtasuna oinarritzat harturik, euskararen normalkuntza eta erabileraren sustapenerako markoa definitzen du Euskararen Legeak. Legeak herritarrari hizkuntz eskubideak aitortzen dizkio, ez dio ezer inposatzen, eta aitorturiko eskubide horiek babeste aldera obligazioak ezartzen dizkie herri-aginteei. Printzipio hori oinarri hartuta, euskararen aldeko ekintza positiboa (diskriminazio positiboa) baliatzeko bide legala irekitzen du Legeak: hizkuntz inposizioari ateak ixten dizkio; ateak ixten dizkio, halaber, Marcuse-ren hitzak erabiliz “tolerantzia errepresiboa” deituko genukeen hizkuntz politikari, eta ateak irekitzen dizkio sustapenean oinarriturikoari. “Tolerantzia errepresiboa” izenez bataiatu dugun hizkuntz politika (eta “laissez faire, laissez passer” izenez ere ezaguna dena) da gaur egun ustezko liberalismoaren, askatasun indibidualaren eta modernitatearen izenean mozorrotuta zenbaitek plazara dakarren hizkuntz politika zaharkitu eta diskriminatzailea, zorionez Euskararen Legeak baztertzen duena.

Elebitasunaren aldeko printzipioa ezartzen du Legeak, baina benetako, ez itxurazko, elebitasunarena. Printzipio hori garbi ezarrita, progresibotasunaren aldeko apustua egiten du aplikazioari dagokionez. Eta hori ulertu behar da Legeak bere egiten duelako lehenago aipatu dugun helburu nagusia, hots, gizarte-kohesioaren helburua. Helburu horren arabera, joera politiko ezberdinetako agenteak, guztiak, saiatu beharko lirakeke gizarteari helarazten benetako elebitasunean elkarbizitzak duela mesede, eta aipatu Legean oinarriturik egiten ari garen hizkuntz politika ez dela zatikatzailea, integratzailea baizik.

Legea tresna bikaina izan da euskarari eremu publiko nahiz pribatuetan lehen ez zuen lekua egiteko, euskaraz dakitenen kopurua gehitzeko –alfabetatuena barne–, eta euskara kultur tresnatzat erabiltzen dutenen kopurua handitzeko. Urteotako hizkuntz politikari esker, gure artean dugu

jadanik aurreko belaunaldietako militantismorik gabe euskara modu naturalean bere egin duten gazteen belaunaldia, euskaraz hazi, hezi eta bizi direnena.

Bestalde, hizkuntz politika garatzeko lanabesen artean, legeriaren esparruan ez ezik badugu hizkuntz plangintzaren eremuan ere tresna inportanterik. Horien artean tresna nagusia Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia aipatu behar dugu. Plan hori da hamarkada honetako hizkuntz politikaren ardatza, herri-aginteen hizkuntz politikaren ildo nagusiak jasotzen dituena, euskalgintzaren jardunerako eta elkarlanerako erreferentzia, eta herri-erakundeen arteko koordinaziorako nahiz euskalgintzako elkarteekiko elkarlanerako oinarritzko tresna. Huts egiteko beldurrik gabe esan liteke berau dela hamarkada honetako hizkuntz politikarako errezeta-biltegi moduko bat, ezagunak ditugun hiru helburu estrategikoen arabera osaturikoa: euskara ondorengoetaraztea, euskarazko zerbitzugintza eta euskararen elikadura.

Tresneria hau egokia delakoan gaude. Nolanahi ere, geuk bultzatu behar dugu debatea, eta horretarako abagune egokia izan liteke EBPNren eskutik egin den bideari buruzko hausnarketa ireki eta zabala antolatu eta aurrera eramatea. Ez gaur egun ditugun lege-oinarriak aldatzeko (esana utzi dugunez egokiak jotzen baititugu gerorako ere), ezta helburu orokorrak birplanteatzeko ere, bai ordea lan-ildoak eta lehentasunak berriz definitzeko, hain zuzen ere helburu horietarantzko bidea egiten modu eraginkorrean jarraitu ahal izan dezagun. Hizkuntz egoera aldatu egin da urteotan, eta horrek hausnarketa eskatzen du. Euskararen aldeko politika indarberritu beharrean gara, egin behar dugun jauzi kualitatiboa egingo badugu.

KONTSENTSUA BERREGIN NEHAR DUGU NAHITAEZ. Bada zerbait behar-beharrezko duguna, eta falta zaiguna: euskararen aldeko adostasun politiko-sozial zabala. 1982an Euskararen Legea onartu zenean lorturiko adostasunarekin alderatzen badugu gaurkoa, bistakoa dirudi atzera egin dugula. Gutxienez 1982an Euskararen Legea onartzerakoan izan genuenaren neurriko adostasun berri bat lantzeari ekin beharko genioke euskararen inguruan; liskarraren bidean

zer irabazirik ez, baina galtzeko ikaragarri baitu euskarak, baita elkarbizitzak ere. Badira dozena bat urte, euskararen egoerak onera egingo ez balu zer gertatuko litzatekeen imajinatuz Bernardo Atxagak hauxe idatzi zuela: “Tal-de batekoak, euskara jakin eta normalki erabili nahi dutenak, kasu, baztertu eta mesprezatuak sentitu eta zapuztu egingo dira euskaldun itxurazaleekin eta erdaldunekin. Itxurazaleak, beren aldetik, tranpan harrapatua dagoenaren amorrazioa hartu eta errudun bila hasiko dira bere inguruetan; erdaldunek, berriz, gehiegizkotzat joko dituzte aurrekoen joerak, eta gorroto hartuko diote azken batean beraiena ere baden kulturari”.

Kontsentsuaren beharraz ondotxo jabetu ziren 1982an, eta zintzo jokatatu zuten euskararen eta elkarbizitzaren mesedetan. Kontsentsu hori berregin beharra dugu, nahitaez. Euskararen normalkuntza gizarte-integraziorako elementutzat hartzen badugu, eta prozesu demokratiko baten bidez bakarrik gauzatu behar dela uste badugu, begien bistakoa da herritarren gehiengo zabal baten onarpena eta konpromisoa ezinbestekoak zaizkiola hizkuntz politikari, baldin eta eraginkorra eta arrakastatsua izango bada. Horregatik zaigu nahitaezkoa aipatu adostasun politiko eta soziala berregin eta areagotzea, “errudunen” bila alferrik katramilatu gabe. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren eskutik urraturiko bidean zazpi urte pasatu ondoren egin beharko genukeen aipaturiko hausnarraldi/debate hori izan liteke adostasun berria lantzen hasteko modu bat.

Euskararen osasunerako eta elkarbizitza ontzeko beharko genukeen hizkuntz adostasun hori zertan oinarritu? 1982an, Gobernu zentralak Euskararen Legearen aurka jarritako inkonstituzionaltasun errekurtsua zela-eta, Fernando Savaterrek idatzitako testu batek abiapunturako baliagarri izan litezkeen oinarri batzuk behintzat badituela uste dugu, gaurkotasun osoa duten oinarriak:

“A estas alturas del siglo parece imprescindible aceptar que un idioma no es sólo un instrumento de comunicación, sino el vínculo identificador de determinada comunidad, la sede de su tradición (que en buena medida, como siempre, puede ser memoria inventada) y el refugio del simbolismo mítico que le brinda sus nociones referenciales. Ninguna lengua puede ser descalificada por el número de sus hablantes, la cuantía y calidad de las obras literarias en

ella escritas, sus aptitudes para vehicular la ciencia moderna, su extensión geográfica, etc., porque no se trata de eso. (...)

”Se dice que en Euskadi no sólo se habla euskera, ni siquiera se habla mayoritariamente euskera y que la realidad histórica del castellano en Euskadi Sur y del francés en Euskadi Norte debe ser aceptada con regocijo cultural. Estoy de acuerdo. Las invasiones y los mestizajes, el intercambio forzoso y la pluralidad inevitable me parecen siempre muy preferibles a la mongolizadora pureza étnico-cultural. Es mejor tener dos lenguas que una y mejor conocer tres que dos. Pero esto no impide afirmar justificadamente que el euskera es la lengua de los vascos: y lo es, no porque sea la única que tienen, sino porque ellos son los únicos que la tienen. (...) La tarea difícil es rescatar y consolidar el euskera, no proteger al castellano y a sus usuarios de la supuesta revancha lingüística: en esto, como en todo, el respeto fomenta el respeto, mientras que la intransigencia suscita intransigencia.

”(...) Las lenguas no se odian entre sí, sólo los fanáticos que las manejan (...) No es verdadero amor al castellano lo que mueve a algunos a intentar convertirlo en fundamento de una concepción monolítica de España; ni tampoco es auténtico amor al euskera el de quienes quisieran utilizarlo como coartada aislacionista...”.

INERTZIAK ASTINDU BEHARRA, ETXE BARRUTIK HASITA. Orain arte esandako guztia-ri buruzko komunikazio eta kontzientzia zabalagoa lortzeko beharrezkoa da etxe barruan egiten ari garen lanari bultzada eta sendotasun irmoagoa ematea, eta *etxe barrua* diogunean, Euskararen Politika bat sustatzen duen gobernu honetako sail guztiez ari gara.

Egindakoa ez da makala, baina lan handia daukagu egiteko, bai, etxe barruan. Garbi badugu ezin direla printzipioak baztertu eraginkortasunaren eta eguneroko eskakizunen izenean, elkarbizitza bermatu beharko lukeen hizkuntzen arteko berdintasun-aukera gure paisaian egiazki nagusi dadin ahalgindu behar dugu ezinbestez. Eta gobernuak eta administrazioak bihurtu

behar dute, lehenik eta behin, prozesu horretan ispilu eta berme. Ispilu, onartutako legeak betetzen dituelako. Eta berme, betearazten dituelako.

Garai bateko helburu kuantitatiboetatik kualitatiboagoetara –alegia, erabilera egiazki bultzatzearekin zerikusia duten helburuetara– jauzi egitea dagokigun garaiotan ez da aski izango gobernuaren ertz batetik edo bitatik euskararen politika bat egitea. Euskararen garapenerako politika Jaurilaritzaren lehenetasunen erreinuan sartzeak eskatzen duena zera da: gobernuko sail guztiek euskararen erabilerarako hizkuntz politika eraginkorra zehaztu eta bere egitea, edota, han eta hemen sarri askotan erabili ohi diren hitzetan esanda, euskararen garapenerako hizkuntz politikari zehar-lerroaren trataera ematea. Euskarak erabilia izango den guneen beharra du, egiazki lan-hizkuntzat hartua izango den gune eragingarriak behar ditu, eta, bide hori urratu, Jaurilaritzako sail guztiak inplikatzeko diren neurrian bakarrik urra liteke.

Etxe barrutik hasita esan dugu, hots, ez etxe barruan bakarrik, etxearen hesi-mugetatik harantzago ere bai baitago inertziak non astindu. Euskararen erabilera gizarte-bizitzan areagotzeko prozesuak agente ugariaren inplikazioa eskatzen du, gaur egungoaren aldean handia izan beharko lukeen inplikazioa, bai administrazio ezberdinen aldetik, baita alderdi politikoaren eta askotariko gizarte-eragileen aldetik ere, hala nola sindikatuen aldetik.

Inertziak astindu beharra begi-bistakoa dirudi, halaber, euskalgintzara jarritako dirulaguntza-politiketan. Inertziak berezkoa du ohikotasunak ematen duen erosotasuna, baina urteak pasatu ahala, eta hizkuntz egoera aldatzen doan neurrian, beharrezkoa dirudi dirulaguntza-programei ere astindu bat ematea. Izan ere, alde batetik, beldurrik gabe onartu behar genuke euskaraz egiten den guztia agian ez dela ona (ahaleginak bai baitu berezkoa meritu, ez ordea nahitaz bikaintasuna), eta bestetik, euskarak merkatu berriak irabazi beharko lituzke, dirulaguntzen ohikotasunaren dinamikatik haratago. Bikaintasuna eta eraginkortasuna bezalako kalitate-printzipioak bermatzeak inertzien aurrean beti erne izatea eskatzen du, inertziak astintzea, alegia.

Ildo berari jarraiki, gizarte-ekimenaren esparruan ere bada zer astindurik. Gizarte-ekimena deitzen denaren baitan euskararen diskurtso ofizial bat eta bakarra eraiki da, eta horren ondorioz badirudi euskararen hautua egiteak diskurtso horren oinarrian dagoen aukera politikoarekin bat egitea dakarrela.

Arlo honetan inertiak astintzeak besteak beste hausnarketa eskatzen duelakoan gaude, honakoa: zenbait sektorek euskarari bizkar emate horretan zenbaterainoko eragina izan du aipatu fenomeno horrek? Uste dugu euskalgintza askotarikoaren aldeko apustua behar duela euskarak, patrimonializazio guztiei ateak itxita. Euskararen munduaren irudia monolitikoa izateak kaltea baino ez dakarkio euskararen garapenari. Euskarak, guztiona izango bada eta guztiok baliatuko badugu, guztiok batu behar gaitu, ez ordea berdindu, ez baikara berdinak, diferenteak eta pentsaera ezberdinetakoak baizik. Euskara ezin liteke diferentzia horiek ezabatzeko edo estaltzeko erabili, diferentzia horiek adierazteko baino.

Bestalde, hainbatetan esan ohi den moduan, eraginkorra da ekimen pribatuaren eta publikoaren osagarritasuna. Halere, eta joko-zelaia zehazte aldera, komenigarria dirudi esatea erakunde publikoei dagokiela –Jaurlaritzari bereziki– hizkuntz politika definitu eta garatzea, hala nola eguneroko jardunean irabazi behar duen lidergoa baliatzea, herritarren hizkuntz kontzientzian, inplikazioan eta konpromisoan eragitea delarik gizarte-ekimenez sorturiko organismoen egiteko nagusia, gure irudiko behinik behin. Politikak, legeak eta administrazioak gauza asko dituzte egiteko, baina erabakigarria gutariko bakoitzak euskarari diogun leialtasuna da: horra euskararen etorkizunaren maratila nagusia. Maratila hori herritarrei ezagutarazten eta askatzen lan bikaina egin dezake gizarte-ekimenak.

Inertzien guztiz kontrakoa eta oso beharrezkoa da euskararen geroaz halako kezka-puntu bat gizarteratzea, konpromiso-aldarri moduko zerbait izango litzatekeena. Kontua ez da, ezta urrik eman ere, hizkuntza gutxitu batek atzera egiteko arriskua berezkoa duelako-edo, ezer onik ez dakarten mezu apokaliptikoak kaleratzea. Izan ere, gainera, Nafarroak eta Iparraldeak eskatzen dituzten ñabardurak ñabardura, begi-bistakoa da duela hogeiren bat urteko hizkuntz galeraren joera bertan behera erori dela; euskaraz gero eta jende gehiagok dakiela eta euskaraz egin ere jende gehiagok egiten duela; hezkuntzan / hedabideetan / administrazioan –ordena horretan– inoiz ere izan ez duen tokia hartu duela gure hizkuntzak; euskaraz egiten den literaturaren maila –literatur itzulpenarena zeresanik ez– oso goikoa dela; euskara batua, estandarra eta jasoa errealitateak ditugula... Aurrera egin dugunez, nabarmen

gainera, eta askozaz hobeto gaudenez, lekuz kanpo legoke etsipena baino ez darien mezu negatiboak plazaratzea, baina, halere, itxaropentsu izan eta azaltzearekin batera, gizarteari arazoak ere baditugula esan behar zaiolakoan gaude, urria eta guztiz irregularra baita oraindik ere euskararen erabilera. Halako tentsioa, gutariko bakoitzaren etengabeko konpromiso-eskaera goxoari eutsi beharko genioke, beraz. Gogorarazi behar baita, Joseba Sarrionandiaren hitzetan, “euskararen paradoxarik larriena da, euskara euskaldun guztien patrimonioa dela, baina, aldi berean, gutxi batzuen hizkuntza”.

EZAGUPENETIK ERABILERARAKO JAUZIA EGITEKO, HIZKUNTZA POLITIKA INTEGRATZAILE ETA MALGUA, BAINA EZ DESEROSOTASUNIK GABEA. Hainbat aldiz esana dugunez, urteotan euskal gizarteak euskararen normalkuntzarako egindako bidearen balantzea positiboa da. Argi-ilunak dituen bidea da, normala denez, baina argiuneak dira nagusi, ez bairik gabe. Halere, aurrerakada horrek ez du euskararen biziraupena berez bermatzen. Ez dago ezkorrak izateko arrazoirik, bai baitugu etorkizunari baikor begiratzeko motibo ugari, baina ezin da euskararen geroa bermatutzat eman.

Aldaketa handia gertatu da, eta etorkizunean ere asko aldatuko da hizkuntz egoera. Aldaketa etorriko dela ohartzeko beste ezer ez bada ere nahikoa da kontuan hartzea 20 urte barru gure herri honetako eliteak euskara erabiltzeko gai direnek osatuko dituztela. Izan ere, gaur egun unibertsitate-ikasketak egiten hasten direnen artean gehiago dira euskaldunak euskaraz ez dakitenak baino. Horrek berak nahitaez euskararen prestigio sozialaren alde egingo du etorkizun hurbilean.

Ezagupenean egin dugu aurrerakadarik handiena. Euskaraz dakitenek hiztun izateko pausoa ematea da orain kontua, euskaldunen kopurua hazten jarraitzeari bizkarra eman gabe, noski. Beste era batera esanda, helburu kuantitatiboetatik kualitatiboetara igarotzeko momentua da, ezagupenetik erabilerarako jauzia egitekoa. Administrazioan, esate baterako, dagokien hizkuntz eskakizuna egiazaturiko langileak gero eta gehiago izan daitezen ahalegintzeari utzi gabe, uste dugu gure kezka nagusia, euskaraz ez dakiten langileen

hizkuntz gaitasuna eta portaera baino gehiago, izan behar dela dagokien hizkuntz gaitasuna egiazaturik duten langileek euskara lan-hizkuntzatzat erabiltzearen aldeko estrategiak definitu eta garatzea.

Badakigu erabilerari dagokionez ezin dela espero epe laburrean sekulako jauzi kualitatiborik gertatzea. Kontua joera bat ala beste markatzea da, eta guri dagokigu joera hori positiboa izan dadin egin beharrekoak egitea. Esate baterako, badakigu erabilera-esparru batzuetan onera egin duela nabarmen euskarak: hezkuntzan batez ere, baita administrazioan eta hedabideen esparruan ere, zeresanik ez literaturgintzan. Baina badakigu, halaber, esparru ez formaletan, nola lagunartean hala lan-munduan, nola aisialdian hala familia giroan, askoz motelago doala gorantz erabilera. Badago, nolabait esatearren, “gailurra” harrapatu izanaren sentsaziorik, alabaina, oraindik ere egitekoen artean galtza bete lan dugu. Horregatik da beharrezkoa, orain arteko joera positiboa indartzea, horretarako baliatu behar diren neurri berriak baliatuz eta zuzendu beharrekoak zuzenduz. Erabilera-esparru ez formalei eta euskaraz jarduteko baldintzak betetzen dituzten guneei (administrazioako hainbat gune, esaterako) arreta handiagoa jarri behar diegu.

Erabileraren kontu honetan bada, agian “politikoki zuzena” ez bada ere, gogoan hartu beharreko beste puntu bat, hizkuntz kontzientziarekin eta jokatibidearekin zerikusia duena. Mitxelenak ohartarazi gintuen ez zuela “dekretuen mirakulu-ahalmenetan” sinesten, norberak hizkuntzarekiko dituen leialtasun eta kontzientzian baitatza gakoa finean. Hori horrela, euskaraz ez dakitenei, presio-sentimendurik sortarazi gabe, euskararen balioaz mezu erakargarriak helarazi behar zaizkie, eta euskaraz dakigunontzako, berriz, zirkuitu osoak moldatu behar ditugu, eta erabileraren aldeko konpromisoa gauzatu. Euskal zirkuituak diseinatu eta gauzatzea da, besteak beste, aurrerapauso eraginkorrek egiteko bidea.

Hau guztiau nola egin? Gaur egungo Eusko Jaurlaritza osatzeko EAJ, EA eta EB-Berdeak alderdiek hitzarturiko akordioan esaten denari jarraiki, hizkuntz politika integratzaile, malgu eta errealitate sozialari egokitua behar dugu. Horrekin esan nahi dugu, gizarte-kohesiorako, ez zatiketarako, behar dugula euskara normalizatu. Uste dugu euskararen garabidea gizakiaren neurrietara egokitu beharra dagoela. Norbanakoaren erresumaren baitakoak

izan behar dira aurrerapausoak eta lorpenak, ez helburu "historiko"ekiko lilura zaharkituaren alorrekoak. Herritar bakoitzaren bizi-kalitatean zuzen-zuzenean sartzen den osagaia izan behar du euskararen erabilera kualifikatuak.

Esan nahi dugu, halaber, azkarregi ez baina geldialdirik gabe, modu pausatuan baina etenik gabe garatu behar dugula hizkuntz politika. Beldurrik gabe aitortu eta onartu behar dugu –horrek ez baitu zerikusirik etsipenarekin, fenomeno sozialen ezagutzarekin baino– 20 urte baino gehiago beharko ditugula euskal gizarte guztiz elebiduna iristeko, gure belaunaldiak ez duela euskararen normalizazioa lortuko –erabatekoa esan nahi da–, eta kontua, hala ere, gure belaunaldiak ere aurrera egitea dela. Beldurrik gabe onartu behar dugu euskaraz bizi ahal izateko aukera bermatu behar dugula, baina ziurrenik euskaldun guztiek –euskaldun prestatuenak barne– ez dutela euskara *bakarririk eta kitto!* erabiliko une eta esparru guztietan. Beldurrik gabe onartu behar dugu helburua herritar guztiak euskara erabiltzeko gai izatea eta zenbait funtziotan –ez guztietan, ezta herritar guztien partetik ere– lehen hizkuntza euskara izatea dela. Beldurrik gabe onartu behar dugu erabilera-esparruak eta funtzioak betetzerakoan hizkuntzen arteko hierarkiak ezberdinak izan litezkeela lurralde bakoitzean. Beldurrik gabe onartu behar dugu, esandako guztia-gatik onartu ere, printzipioak eta helburuak garbi izanik, erritmoei dagokienez malgutasunez jokatu behar dugula, estrategia eraginkorrak baliatuz beti ere.

Esan nahi dugu, baita ere, erdaldunenganako diskurtso erakargarria eta gozoa egin behar dela euskararen izenean. Euskarak balio erantsia proiektatu behar du, euskaraz ez dakienak mundu oso bat galtzen duela senti dezan. Eta, euskararen munduak berak bere baitan duen aniztasuna proiektatzen asmatu behar da. Euskararekiko atxikimendua ez dugu lortuko euskara sinbolotzat proiektatuz, are gutxiago sinbolo politikotzat emanez; euskara erakargarri eta baliagarri den neurrian hedatu eta errotuko da gizartean.

Hau guztiau diogunean, ordea, argi eta garbi esan behar da gizarte bat benetan elebiduna izango bada nahitaez herritarrek elebidunak izan behar dutela. Argi eta garbi esan behar da elebakartasunetik elebitasunerako bidea injustiziarik gabe egin daitekeela eta hala egin behar dela, baina ezinezkoa dela deserosotasunik eta nekerik sortarazi gabe egitea, ezinezkoa dela ahulenaren aldeko ekintza positiborik gabe egitea. Argi eta garbi esan behar da,

beraz, euskararen garabidea eta biharko gizarte elebiduna errealtate izango badira nahitaezkoa dela gaur oraindik euskararen mundutik urrun diren erdaldunak euskara sustatzeko prozesuaren aurrean jarrera positiboa hartu eta lan honetan inplikatzeko, inoiz ere ahaztu gabe hau ez dela erdararen aurkako borroka eta hemen bere hizkuntzan bizi izateko ezintasun nabarmenak dituen bakarra –eta oraindik ere urtetan zehar izango dituen– euskalduna dela. Argi eta garbi esan behar dugu, azkenik, euskararen normalkuntzaren aldeko jarrera dela –kontrakoa ez bezala– jarrera moderno, kosmopolita eta demokratikoarekin bat egiten duena.

Asmatuko al dugu gizarteari helarazten, eta bereziki erdal munduari jakinarazten, biharko elebitasun hori benetan ahalbidetzea eta euskarari etorkizun oparorako ateak irekitzea helburu zoragarria dela, helburu komunitarioa dela, eta inork ez duela zertan ezer galdurik prozesu honetan, baizik eta denok dugula zer irabazia? Asmatuko al dugu euskararen arazoa ez dela gizartearen zati baten arazo, baizik eta gizarte osoaren arazo dela adierazterakoan?

Kontua aski sinplea delakoan gaude: finean, herritarren borondate librea eta atxikimendua izango dira gure gizarte eleanitz honetako bizitzan euskarak izango duen pisua erabakiko dutenak. Baina, kontuz, borondate hori librea izango bada, eta gure Herriko hizkuntzen arteko harremana berdintasunean oinarrituta gauzatuko bada, nahitaezkoa da gaur egun ez dugun berdintasun-puntura iristea. Horrek eskatzen du euskal herritarrak elebidun izatea eta euskaraz bizitzeko aukera egiazkoa izatea. Hori da pixkanaka eta gizartean pitzadurarik eragin gabe –ez, ordea, deserosotasunik sortarazi gabe–, datozen urteetan guztion artean landu beharreko helburu komunitario zoragarria.

2. JARDUNBIDE NAGUSIAK

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZARI DAGOKIONEZ, Euskararen Legea eta gainerako araubidea, hizkuntz politikaren alorrak daraman orain arteko bidea eta, bereziki, EBPNren garapena aintzakotzat ditugularik, ondorengo jardunbideak hartu eta bideratuko ditugu:

1. Eusko Jaurlaritzak eta euskal administrazioak oro har modu oraindik ere eraginkorrago batez jarraipena ematea euskararen normalizazioari. Horretarako ezinbestekoa da hizkuntz politikari zentralitatea ematea eta, beraz, hizkuntz politika Eusko Jaurlaritzaren baitan zehar-lerrotzat hartzea. Transbertsalitate-izaera hori aitortzeak eskatzen du Jaurlaritzako sail bakoitzak bere ohiko jarduera eta egitasmoak diseinatu eta garatzerakoan hizkuntz irizpideari lekua egin beharko diola. Hori horrela izan dadin saiatu beharko du HPSk. Bide hori urratzeko lanetan laguntza eskainiko die HPSk gainerako administrazioei.
 - 1.1. Kontratazioan Eusko Jaurlaritzak erabiliko dituen hizkuntz irizpideak finkatzea, horren berri emanez gainerako administrazioei.
 - 1.2. Sail bakoitzak bere programa nagusietan, bereziki proiektio sozial handiena dutenetan, euskararen presentzia eta erabilera indartzeko neurriak har ditzan beharrezko dituen lankidetzak eta aholkua eskaintzea.
 - 1.3. Eusko Jaurlaritzak bere jardunean euskararen erabilera normalizatzeko onarturiko III. Planari begira, sail bakoitzak bere egitas-

mo propioa erabaki eta indarrean jartzeko lankidetzeta eta aholkua ematea.

2. Alderdi politiko, sindikatu eta eragile sozial eta ekonomikoek euskararen normalkuntzarekiko duten konpromisoa areagotzen saiatzea. Eragile horiei elkarlana eskaini jarrera eredarriak hartu eta gizartera ditzaten.
3. Erdal komunitatearen inplikazioa bilatzea bai euskararen normalkuntzaren bidean, baita euskal munduari buruzko komunikazioa bideratzeko ahaleaginean ere.
4. Ezagupenetik erabilerarako jauzia egite aldera, euskara erabiltzeko gai direnen inplikazioa areagotzea, beren hizkuntzarekiko lotura eta auto-estimua indartuz, euskararen lehentasunezko erabilera sustatuz eta euskararen erabilera hegemonikoa izango duten guneak sortuz.
5. Euskararen diskurtso integratzailea eta erakargarria landu eta sistematikoki gizarteratzea.
6. Eusko Jaurlaritzaren gidaritzapean, herri-aginteen arteko koordinazioa eta elkarlana sendotzea hizkuntz politika kontuetan, HAKOBaren bitartez:
 - 6.1. Euskara biziberritzeko aurrekontuen jarraipena egitea.
 - 6.2. Diru laguntzetarako irizpideak koordinatzea, lehentasunak finkatuz eta erakunde bakoitzaren jardun-esparruak zehaztuz. Diru laguntzak ebaluatzea.
 - 6.3. Informazio eta Komunikazioaren Teknologia Berrietan euskarari sarbidea emateko estrategiak partekatzea.
 - 6.4. Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko III. Plan-gintzaldiaren jarraipen bateratua egitea.

- 6.5. Lege-garapenaren jarraipen eguneratua egitea.
- 6.6. Kontratazio administratiborako hizkuntz irizpideak partekatzea.
- 6.7. Euskararen Aholku Batzordeak herri-administrazioei begira ematen dituen aholku-gomendioen jarraipen bateratua egitea.
7. Gizarte-ekimeneko organismoak indartzea eta beren ekarria bideratzea, beti ere herri-agintek diseinaturiko hizkuntz politikaren osagarri gisa. Izan ere, herri-aginteen ardura bada ere hizkuntz politika diseinatu eta garatzea, gizarte-ekimeneko organismoen ekarria garrantzizkoa da herritarrek hizkuntzarekiko duten atxikimendua sendotzeko.
8. Euskarazko kultur merkatua trinkotzea, zabaltzea eta normalizatzea, kultur kontsumitzaileen apeten zati esanguratsua euskaraz ase dezagun. Horretarako, arreta berezia eskainiko zaie Kulturaren Euskal Planean ezarritako lan ildoei.
9. Euskaraz landutako eta plazaratutako kalitatezko ekarpenak bikaintasunaren irizpideen arabera bultzatzea eta babestea. Era berean, euskarak nahitaezko zehar-lerroa izan behar du zeinahi alorretako ikerkuntzaren komunikazio-estrategian, oso bereziki unibertsitatetik edo erakunde publiko nahiz parapublikoetatik bideratutakoetan. Horrela, hizkuntzaren aurrerabidean ezinbestekoa zaigu euskara eta goi mailako kultura eta zientzia ekoizpena estu lotzea, bereziki dibulgazioari dagokionez.
10. Euskarazko kultur produktuak eta produktu horien sortzaileak nazioartean ezagutzera emateko estrategiak indartzea (komunikazio-politika eraginkorra, itzulpena, sustapena...), eta nazioarteko proiektio hori euskal gizartean bertan ere euskararen eta euskal kulturaren prestigioa areagotzeko baliatzea.
11. Euskara normalizatuaren eta kaleko euskararen artean etenik gerta ez dadin, hausnarketa egin eta kaleko erabilerari berebiziko arreta eskaintzea.

12. Autokritika eta debatea saihestu gabe, eta prozesu sozialek eskatzen duten malgutasunez, legeak eta erabakiak betearazten saiatzea.
13. Hizkuntz politikaren arloan egindako bidea eta ondorengo urteetan eman beharreko pausoak aztergaitzat hartuta, hausnarketa eta debatea bultzatzea, kasua balitz etorkizunerako estrategiak, lan-ildoak eta lehentasunak dagokion neurrian birdefinituz. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak sei urteko ibilbidea egin duenez, une egokia da era honetako eztabaida egiteko. Aztergaiei dagokienez, ahalik eta zabalena, eta parte hartzaileei dagokienez ahalik eta irekiena izango da gogoeta. Euskararen munduak ez ezik erdal munduak ere lekua izango du, nahitaez, ekimen honetan. Erakunde publikoak, hezkuntza, kultura, he-dabideak, enpresa, alderdi politikoak, sindikatuak, elkargo sozial eta ekonomikoak, euskalgintza...: esparru guztiek izango dute tokia debate horretan. Iraganaz lasai eta askatasunez eztabaidatzea, eta etorkizunerako lan-ildoak eta lehentasunak finkatzea izango da debate ireki horren egiteko nagusia. Hitzaldiak, jardunaldiak, mintegiak, artikulak, txostenak... izango dira gogoetaren tresna nagusiak. Euskararen normalkuntzan aurrera jarraitzeko ilusioa berpiztea izango du debate horrek helburu.
14. Euskararen aldeko jarrera politiko eta soziala bultzatzea, eta horretarako euskararen normalkuntzaren inguruan adostasun politiko eta sozial berria lortzeko lanak egitea. Bide horretan malgutasunez jokatu beharko da hizkuntz politikaren aplikazio-erritmoetan, eta argitasunez politika horren oinarritzko printzipioetan: bi hizkuntzen berdintasun soziala lortu behar da (gaurko egoera diglosikoa baita); gizarte elebidunak herritar elebidunak behar dituzenez, hurrengo belaunaldiek bi hizkuntzak ezagutu ditzaten tamainako neurriak hartu behar dira orain; gehiegikeriarik gabe garatu behar da euskararen normalkuntza prozesua, baina onartu beharko da ezinezkoa dela nekerik eta deserosotasunik sortu gabe egitea; gizabanakoaren borondatera eta erabakira errenditu behar du hizkuntz politikak, baina aukera hori libreza izan dadin

ezinbestekoa da aldez aurretik hizkuntzen arteko berdintasun sozialera iristea; eskubideen subjektua gizabanakoa da, ez hizkuntza: horregatik herri-aginteek segurtatu egin behar dute euskaraz bizi nahi dutenek euskaraz bizitzeko modua izatea.

15. Immigrazioaren fenomenoari modu eraginkorren eta integratzailean aurre egitea, besteak beste gaur egun dugun diglosia egoera areago ez dadin. Hori xede hartuta, Immigrazio Zuzendaritzarekin eta etorkinen elkarteekin elkarlanean, fenomenoaren ezagutza eta deskribapen egokia eskura jarriko diguten behar beste ikerketa eta azterketa egin behar dira, eta etorkinak euskarara erakartzeko bidea irekiko duten hizkuntz planak diseinatu eta garatu behar dira, hezkuntza-sistemaz ez ezik euskaltegien sareaz ere baliatuz.
 - 15.1. Immigrazio Zuzendaritzarekin adostea eta koordinatzea etorkinentzako harrera zerbitzuetan (HELDU, BILTZEN, udaletako immigrazio teknikariak...) euskararen inguruko jakingarriak eta oinarrizko euskalduntze modulua ere hasieratik jaso ditzaten.
 - 15.2. Immigrazio fenomenoaren azterketa eguneratuan oinarrituta, aparteko eragina izan dezaketen "talde estrategikoak" identifikatzea eta berariazko planak diseinatzea Immigrazio Zuzendaritzarekin elkarlanean.
 - 15.3. AISA metodologia garatzea eta hedatzea, etorkinak euskararen ezagutzara hurbiltzeko.
 - 15.4. Ikas material berriak eta bereziak sortzea, etorkin helduek eta gazteek euskararen oinarrizko ezagutza eskura dezaten.
 - 15.5. Hezkuntza Sailarekin batera Helduen Heziketan euskararen inguruko jakingarriak eta oinarrizko euskalduntze ikastaroak eskaintzea.
 - 15.6. Immigrazioari buruzko Euskal Planean ageri diren neurriak garatzea.

16. Helduen euskalduntze-alfabetatzea. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian aitortzen den moduan, “euskararen berreskurapenean, euskal irakaskuntzarekin batera, helduen euskalduntze-alfabetatzea izan da ekinbiderik eta mugimendurik garrantzitsuena”. Hortaz, euskararen aurrerabidea bermatzeko eta gizarte elebidun orekatura iristeko oinarrizko giltzarria da helduen euskalduntze-alfabetatzeko sistema. Hori aintzat hartuta, eta Euskararen Aholku Batzordeak sektoreari buruz eginiko txostenaren eta proposamenen ildotik (*Euskalduntze-alfabetatzearen etorkizunerako oinarriak eraginkortasunari eta kalitatea hobetzeari begira*. Gasteiz, 2003), helduen euskalduntze eta alfabetatzearen alorrean, gizartearen eta ikasleen beharretara egokitutako irakaskuntza eskaintza landuko dugu (eskaintza orokorra nahiz gizartearen behar espezifikoetara berariaz egokitua) eta ikas-prozesuaren eraginkortasuna bermatuko dugu, zerbitzuaren kalitatea eta ikasleen emaitzak lehenetsiz eta euskaltegi publiko eta kontzertatuen jarduna sendotuz.
 - 16.1. Helduen euskara ikaskuntzarako sarea eta eskaintza gizartearen behar berrietara etengabe egokitzearen, euskaltegiekin eta autoikaskuntza zentroekin elkarlanean, ikas-prozesu aukera asotarikoa eta kalitatezkoa bermatzeko behar diren azterlanak eta ekoizpenak garatzea, curriculum, modulu, ordutegi, metodologia, sistema, euskarri eta abarrei dagokienez; guztiak ere euskara ikasleei ikas-prozesuan emaitza egokia izango dutela bermatzearen.
 - 16.2. Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Curriculumean ezarritako lau gaitasun-mailetan oinarrituta, eta Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoan txertatzeari begira:
 - a) oinarrizko curriculumean zehazten diren ikas-mailen aitortza indarrean jartzea, maila sozialean, ekonomikoan eta ofizialean euskaltegietako ikasleek behar dituzten errekonozimendua eta pizgarriak izan ditzaten, eta

- b) alor eta esparru desberdinetan (Administrazio Orokorra, Hezkuntza, Osakidetza...) indarrean diren gaitasun-mailen arteko baliokidetze orokorra egitea, batean zein bestean pasatutako azterketa eta ebaluaketak errepikatu beharrik ez izateko.
- 16.3. Euskaltegi, autoikaskuntzarako zentro eta euskal etxeen jarduna sendotzeko, diru eta material baliabideak hobetzen laguntzea, ikas-prozesuetarako HABErekin hitzartutako helburu eta kalitate eskakizunei jarraiki.
 - 16.4. Euskaltegien mapa lantzea, sare publikoaren eta pribatuaren osagarritasun-irizpideetan oinarrituta.
 - 16.5. Helduen irakaskuntza jakintzaren gizartean ongi txertatua eta teknologia berriez ongi hornitua egon dadin sustatzea.
 - 16.6. Helduen euskalduntze-alfabetatzean, presentziazko irakaskuntza sistemaz gainera, autoikaskuntzako sistemak eta sistema bitarikoak sustatzea.
 - 16.7. Euskaltegietan eta autoikaskuntzako zentroetan kalitate-planak eta prozesuak gauza daitezen sustatzea.
 - 16.8. HABE erakunde autonomoan kalitatearen kudeaketa-plana ezartzea.
 - 16.9. Euskalduntze-alfabetatzearen eta erabilera sozialaren arteko zubiak eraikitzea, lortutako emaitzak familiako eta gizarteko erabileran jarraipena izan dezan bermatzeko.
 - 16.10. Herritarren euskararenganako motibazioa sendotzeko, sustapen-kanpainak egitea, hizkuntza jakitearen eta elebidun izatearen alderdi positiboak azpimarratzeko eta erabileraren aldeko mezu positiboak hedatzeko.
 - 16.11. Hizkuntz jarrera eta erabilerari dagokienez, gizarterako eredu-garri izan daitezkeen pertsona publikoak euskalduntzeko eta

erabilera elebidunean konprometitzeko programa pilotuak abian jartzea.

- 16.12. Ikastetxeekin eta herri-erakundeekin (aldundi eta udalekin) elkarlanean, euskararen famili transmisioa sendotzeko jarduerak lan-tzea (gurasoen euskara ezagutza, gurasoen arteko euskararen erabilera eta guraso eta umeen arteko euskararen erabilera sendotzearen).
- 16.13. Lan-munduari dagokionez, esparru berriek administrazioaren arloan (osasunean, justizian, enpresa publikoetan ...) nahiz pribatuan (enpresetan, profesionalen elkargoetan...) sortuko duten eskariari era eraginkorrean erantzutea, ikaskuntza eta erabilera plan bereziak eginez, material egokiak sortuz eta abar.
17. Hedabideetan euskararen presentzia areagotzea eta euskarazko hedabideak bultzatzea.
 - 17.1. Dauden hedabideen inguruko balorazioa egitea eta datozen urteetarako politika definitzea gainerako herri-aginteeekin batera.
 - 17.2. Hedabideen arloko lege-garapenean hizkuntz irizpidea txertatzea.
18. Euskararen familia bidezko jarraipena sustatzea, gazteen arteko harremanetan euskararen erabilera sendotzeko eta familia osatu berrietan euskara haurren lehen hizkuntza izateko planak bultzatuz.

Udalekin eta hezkuntzako eragileekin egitarau bereziak diseinatzea eta garatzea, horretarako behar diren baliabideak eskainiz.
19. Alor sozio-ekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko saio sistematizatuak bultzatzea, ondorengo elkarteon inplikazio eta parte hartze zuzena antolatuz: merkataritza-ganbarak, enpresari-elkarteak, sindikatuak, lanbide-heziketarekin eta prestakuntza iraunkorarekin lotura du-

ten organismoak, eta Eusko Jaurlaritzaren barruan lan-munduarekin harremana duten sailak (Justizia; Lan eta Gizarte Segurantzza; Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura; Industria, Merkataritza eta Turismoa; Garraioa eta Herrilanak; Ingurumen eta Lurralde Antolamendua). Enpresen euskararen erabilera areagotzeko planak sustatuko dira, enpresen tipologia eta ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuz moldaturiko plan-eredu baten arabera. Halaber, enpresetako euskararen erabilera gaur egun organizazio pribatuetan indarrean diren kalitate-parametroen arabera modu sistematizatuan aitortu eta ebaluatzeko prozedura finkatuko da, horretarako espresuki ziurtagiria sortuz edota jadanik organizazio pribatuetarako finkaturik dauden kalitate-ziurtagirietan euskararen aldagaia txertatuz.

19.1. Oinarrizko egitekoak:

- a) Euskara planetarako erreferentzia marko estandarra finkatzea.
- b) HPSk eskaini behar dituen zerbitzu eta produktuak finkatzea, zabaltzea eta ezagutaraztea.
- c) Finantzazio-modua aztertzea eta, hala badagokio, berregokitzea.
- d) Sail arteko lana eratzea.
- e) Esparru honetan euskararen presentzia eta erabilera neurtzeko adierazleak definitzea, eta horiek datuez hornitzen joateko sistema eraikitzen eta osatzen joatea (EAS).

19.2. Egoeraren diagnostikoa eta ezagutza sakonagoa izatea, inplementazio-neurri eraginkorrako abiatzeko, eta bilakaera neurtzen joateko.

19.3. Lege-garapena eta esparruari loturiko plan estrategikoetan hizkuntz irizpidea txertatzea.

- 19.4. Sentsibilizazioa eta komunikazioa, eragile sozio-ekonomiko nagusiei, Lan Harremanetarako Kontseiluari, eta arlo sozio-ekonomikoarekin lotura duten herri erakundeetako sailei zuzendua.
 - 19.5. Agente sozio-ekonomiko nagusiekiko elkarlana eta kontzertazioa bideratzea.
 - 19.6. Jardunbide honen baitako establezimenduetarako berariazko programak garatzea: establezimendu komertzial handiak (saltoki handiak, denda-kateak eta frankiziak), banketxeak eta aseguru-etxeak, ostalaritza (tabernak eta jatetxeak), zerbitzugintzari loturiko gainerako establezimendu-motak (txikizkako saltokiak)...
20. Administrazioetako euskararen erabilera normalizatzeko planak indartzea, euskara zerbitzu-hizkuntza ez ezik gero eta administrazio-atal gehiagotan ohiko lan-hizkuntza ere izan dadin neurriak hartuz. Aipatu irizpide horren ildotik egin beharreko zuzenketak eta egokitzapenak finkatzeko ahalegin berezia egin beharko da III. Plangintzaldiaren tarteko ebaluazioa egiterakoan. Era berean, Jaurlaritzako sail guztiekiko elkarlana eta langileenganako komunikazioa indartu beharko dira, eta sail bakoitzak bere erabilera-plana onartu eta garatzea bermatu beharko da. EBPN garatzearen ildotik udal-administrazioekiko harremana ere sendotu egin beharko da, administrazio horien erabilera-planei bultzada emateko. Erabilera-planen marko legeetik (legeak eta dekretuak) eratortzen diren irizpideak ahalik eta gehien zehazteko eta, hala dagokionean, birdefinitzeko saioa egingo da.
- 20.1. III. Plangintzaldiaren (2003-2007) tarteko ebaluazioa egitea.
 - 20.2. EBPNren hedadura zabaltzea.
 - 20.3. EBPN garatzeko Plan Estrategikoa bukatzeaz duten udalen konpromisoa berritzea.

- 20.4. Zinegotzi eta teknikarientzako aholkularitza eta lanerako irizpi-deak ematea, euskararen erabilera areagotzeko programak sustatze aldera.
 - 20.5. Administrazio atal elebidunetan euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izatera iristeko, euskararen erabilera ereduak finkatzea eta hedatzea.
 - 20.6. EBPNren garapenean esperientzia eredugarriak sustatzea.
 - 20.7. Erabileraren zertifikazio-sistema egituratzea.
 - 20.8. Teknologia berrien erabilera sustatzea komunikazioa hobetzeko eta sinergiak bideratzeko.
 - 20.9. Administrazioetako erabilera-planen inguruan komunikazio plan egokia martxan jartzea.
 - 20.10. Finantzazio sistema aztertzea eta, hala badagokio, berregokitzea.
21. Gune euskaldunenetan euskararen etorkizuna bermatzeko neurriak garatzeari arreta berezia eskaintzea. Hori lortzeko ezinbestekoa da herriko sareen euskalduntzeari behar bezala eustea. Honetan, lehen-tasunik handiena gazteen sareek dute, sare berriak eratzen dituztenak gazteak baitira nagusiki. Herri-administrazioei dagokienez, lehen-tasunekoa da osasun eta gizarte zerbitzuetako sendagile, erizain, pediatra eta langileak euskalduntzea. Horrekin batera, aipatutako kolektiboek euskara "erabiltzeko" baliabideak eskaini behar zaizkie (euskalkien erabilera, batua, euskarazko baliabideak...):
- 21.1. Udalerrin euskaldunenetan (%70 euskaldunak) egun Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak duen garapena sakonki aztertzea.
 - 21.2. Euskararen erabilerarako gune berriak ezartzeko, edo gauzatuta daudenak indartzeko, proposamenak lantzea.

22. Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzea eta herritarren hizkuntz eskubideak babestea herri-aginteen ardura denez, hala eskatzen duten herritarrei beren hizkuntz eskubideak babesteko zerbitzua eratuko da, herritarrari babesa eta hizkuntz eskubideak urratu-rik gertatzen diren guneeetako arduradunei urraketa hori gainditzeko laguntza eskainiko zaizkielarik.

Hizkuntz eskubideen zerbitzua antolatzea, eginbeharrak finkatuz eta Arartekoaren egitekoekin osagarritasuna bermatuz bikoizketak saihesteko.

23. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan euskarazko baliabideak, tresnak eta aplikazio berriak garatzea. Halaber, euskararen presentzia areagotzea Internet-en, eduki digitalak sortuz. Mar-ko honetan landuko dira, besteak beste, itzulpen automatikoari dagozkionak, euskarazko ahotsaren ezagutza eta sintesiaren balizko aplikazioei buruzkoak, entziklopedia multimediarren bati legokiokeen euskarazko bertsioa sortzearen ingurukoak, eta euskarazko kultur produktuak sortu eta digitalizatzeko aukerak (XX. mendera arteko euskarazko testu guztiak edota Unibertsitateetan euskaraz egindako ikerketa-lan guztiak digitalizatzea eta hedatzea...). Behar-beharrezkoa irizten diogu, nolana ere, alor honetan euskarak gaur egun duen presentziari eta teknologia berri hauetan jadanik badiren euskarazko baliabideei buruzko azterketa eta erradiografia bat egiteari, eta etorkizunean urratu beharreko ildo zehazteari. Kontuan hartzekoa da informazio eta teknologia berrien esparru hau euskararentzako lehenetsutakoa baldin bada, ez dela bakarrik globalizazio/digitalizazioaren gizartean gaudenez euskarak ere gainerako hizkuntza guztiek bezala fenomeno horretara egokitu behar duelako, baizik eta, gainera, Internet-eko erabiltzaileen profilaria buruzko azterketek diotenez, euskaraz dakiten gazteak teknologia horien kontsumitzaile handienetakoak izateko itxura dutelako.

24. Euskararen eremu osoan euskararen erabilera sustatzeko jarduna bultzatzea, Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako herri-erakundeekin eta elkarteekin lankidetzan bideratuz.
 - 24.1. Iparraldeko herri-aginteekin lankidetzan marko sendorako urratsak egin eta ekimen pribatua sustatzea.
 - 24.2. Nafarroako Gobernuarekin egitarauak lotzeko urratsak egin eta ekimen pribatua sustatzea.
25. Euskararen presentzia mugaz gaindi ere areagotzea, horretarako, beste zenbait ekintzaren artean, euskal etxeekin lankidetzan eta unibertsitateetako irakurle-postu programa sendotuz.
26. Euskararen Aholku Batzordearen lana bultzatzea, jarraipen-batzordeei nahiz berariazko batzordeei dagokienez.
27. Espainian eta nazioartean hizkuntza gutxituen sustapen-politiketan diharduten erakundeekin harremana sendotzea.
 - 27.1. Kataluniako Generalitatekin eta Québec-eko Gobernuarekin ditugun lankidetzan-akordioaren jarraipena eta proiektu komunak definitzea.
 - 27.2. EBko hizkuntzak: Lehendakaritzako Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzarekin lankidetzan jardutea.
 - 27.3. Erregioen Batzordean Eusko Jaurlaritzak duen ordezkariari hizkuntza politikari buruzko aholkularitza eskaintzea, eskatzen duenetan.
 - 27.4. Europako Kontseiluarekiko eta Europako Komisioarekiko harremanei eustea.
 - 27.5. Hizkuntza politikaren alorrean ari diren erakundeekin lan-programak garatzea.

28. Ibilbide bat egina duten dirulaguntza-deialdien ebaluazioa egingo da (euskalgintza, EBPN eta herri-administrazioetako planak, teknologia berriak, hedabideak, Iparralde eta Nafarroari begira sorturikoa). Ebaluazioa eta azterketa kualitatiboa egingo da, halaber, administrazioeko euskararen erabilerari buruz, hainbat ikuspegitatik egin ere.
 - 28.1. Deialdi guztien ebaluazioa egitea eta gainerako herri-aginteekin batera hurrengo urteetarako estrategia finkatzea.
 - 28.2. Hurrengo urteetarako deialdietako helburuak, dirulaguntza gaiak eta irizpideak finkatzea.
 - 28.3. Deialdien inguruko prozedura ondo finkatzea, helburua izanik urtearen lehenengo sei hilabetekoan deialdiak ebatzita izatea.
29. Toponimia normalizatzeko lanei jarraipena emateaz gain, kartografian, bide-seinaleztapenean eta hizkuntz paisaian euskararen erabilera hedatzeari –eta txukun hedatzeari– bultzada emango zaio.
 - 29.1. Toponimia eta kartografia lantzen edo erabiltzen dituzten erakundeekin, Euskal Herrikoekin (Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduarekin, Foru Aldundiekin, udalekin, Euskaltzaindiarekin) nahiz kanpokoekin (Instituto Geográfico Nacionalarekin) lankidetzatza sustatzea eta indartzea.
 - 29.2. Toponimiaren erabiltzaile nagusiei toponimia datu-basearen informazioa eskura jarri eta kontsultarako prozedura adieraztea.
30. Sentiberatzeari dagokionez, legealdirako egitasmo espezifikoak sortzea, helburuak izanik euskaraz dakitenei erabileraren aldeko mezua igortzea, edota erdal munduari euskararen munduaren berri modu erakargarrian ematea.
31. Euskaltzaindiaren eskutik eta hainbat elkarterekin elkarlanean euskararen corpusa estandarizatzeko, modernizatzeko eta normalizatzeko lanak planifikatu eta sustatzea, berauen artean arreta berezia eskai-

niko zaiolarik euskararen erreferentziazko corpusaren proiektuari eta terminologia-lanari.

32. Bilakaera soziolinguistikoaren berri izateko ikerlanak bultzatzea (Euskal Herriko Hizkuntz Adierazleen Sistema - EAS).

32.1. EAS-emaitzak:

- a) III. mapa soziolinguistikoa (2. zatia): Familia bidezko transmisioaren azterketa zehatza.
- b) Euskal Herriko IV. inkesta soziolinguistikoa.
- c) IV. mapa soziolinguistikorako datu-bilketarako ereduak finkatzeko irizpideak lantzea EUSTATEkin.

32.2. EAS-baliabideak:

- a) Euskararen azpiegitura publikoen eta pribatuen datu-basea.
- b) Euskararen sustapenerako EAEko aurrekontu publikoen azterketa.

32.3. Esparrukako programetarako adierazleak finkatu eta elikatu EUSTATEkin batera: hezkuntza, helduen euskalduntze-alfabetatzea, administrazioa, esparru sozio-ekonomiko pribatua, liburugintza, teknologia berriak, hedabideak...

32.4. Euskararen erabilerarako motibazioa neurtzeko metodologia.

32.5. Egoera soziolinguistikoari eta hizkuntz politikaren bilakaerari buruzko informazioa zabaltzea.

33. Euskararen kalitatea bermatu eta gordetze aldera EABk markaturiko ildoak lantzea.

ERANSKINA

EGOERA SOZIOLOGIKOAK

0. SARRERA

Euskal Herriko egoera soziolinguistikoan aldeak daude lurralde batetik bestera: Nafarroako iparraldea, Ipar Euskal Herriko barnealdea, Gipuzkoa eta Bizkaiko ekialdea dira eremurik euskaldunenak; Araba, Bizkaiko mendebaldea, Iparraldeko kostaldea eta Nafarroako hegoaldea, berriz, erdaldunenak. Euskal Herriko hiriburuak edo metropoliak ere, hau da, Bilbo, Gasteiz, Iruñea eta Baiona (Donostia salbuespena da) ia erabat erdaldunak dira.

Euskara ofiziala da Euskal Autonomia Erkidego osoan duela hogeitaz geroztik eta legea euskararentzat lagungarria da arlo gehienetan; Nafarroako lur zati batean ere ofiziala da, zertxobait geroztik; baina oraindik ez da ofiziala ez Ipar Euskal Herrian, ezta Nafarroako lur zatirik handienean ere. Hortaz, euskaraz bizitzeko eskubidea aitortzeko, eremu hori irabazteko bide luzea dago egiteko oraindik.

1. EUSKAL GIZARTEAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Aldi berean, euskal populazioaren baitan aldaketa sakona eta azkarra ari da gertatzen. Aldaketa horrek ondorengo ezaugarriak ditu:

- Jaiotze-tasaren beherakada bortitza. Horrek biztanleria osoaren beherakada eta datozen urteetan areagotu egingo den popula-

zioaren zahartze azkarra bestetik eragin du. Gazteenen artean gertatu den galera izugarria izan da; Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn), 16 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren ia herena galdu da azken hamar urteotan.

- Hasi berria den inmigrazioa; hemendik aurrera gero eta handiagoa izango dena.
- Euskaldunen kolektiboaren errotiko aldaketa. Euskaldun berrien kopurua asko hazi da. Izan ere, euskaldun berriak euskaldun zaharrak baino gehiago dira argi eta garbi gazteenen artean. Bi kolektibo horiek (euskaldun zaharrak eta berriak) oso ezberdinak dira kualitatiboki, bai euskaraz nahiz gaztelaniaz hitz egiteko duten trebetasunari edo erraztasun erlatiboari dagokionez bai familiako, gizarteko eta laneko harreman-sareetan duten euskaldunen dentsitateari dagokionez ere. Eta, azken batean, horren arabera izan ohi da hizketarako hautaturiko hizkuntza.

2. EUSKAL HERRIKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOAREN EZAUGARRI NAGUSIAK


Oro har, eta hizkuntza-gaitasunari dagokionez, euskararen aurrerapena begi-bistakoa da **EAEn** (Euskal Herriko biztanleen ia hiru laurden eta euskaldunen %80tik gora bizi baita bertan). Ia ez dago galerarik eta euskaldunen proportzioa gero eta handiagoa da gazteen artean. Aldi berean, euskararen transmisioa ia erabatekoa da guraso biak euskaldunak direnean, baina gero eta gehiago transmititzen da bietako batek bakarrik dakienean, nahiz eta horrelakoetan euskara gaztelaniarekin batera transmititzen den.

Nafarroan ere euskaldunak gero eta gehiago dira. Hazkunde hori euskaldun berriei esker gertatzen ari da, euskaldun zaharrak etengabe gutxitzen ari direlako. Euskaldunen artean, beraz, aldaketa sakona izaten ari da: euskaldun berriak euskaldun zaharrak beste dira jada. Euskal hiztunak, esan bezala, gero eta gehiago izan arren, galerak irabaziak baino handiagoak dira

oraindik. Zorionez, baina, gazteen artean egoera alderantzikoa da: 35 urte baino gutxiago dituztenen artean, euskara ikasi dutenak etxean jaso eta ondoren galdu dutenak baino gehiago dira.

Iparraldean, euskara ez da hizkuntza ofiziala, eta mendeetan zehar egoera diglosikoan mantendu den arren, indarra eman izan dioten erabilera-eremuetan (familian, lagunartean eta gertuko komunitatean, hain zuzen) alboratuta geratzen ari da, oso azkar gainera. Hortaz, euskararen galera nabaria da, nahiz eta gazteen artean badirudien galera moteltzen ari dela.

HIZKUNTZA-GAITASUNA, LURRALDEAREN ARABERA
EUSKAL HERRIA, 2001 (%)




Unibertsoa: 15 urtetik gorako biztanleria

Iurria: Soziolingüistikako inkesta 2001. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz.

Erabilerari dagokionez, erdara da gehien erabiltzen den hizkuntza. Harelere, euskararen erabilerak gora egin du **EAEn**, batez ere euskaraz hitz egiten hasi diren gazte euskaldun berriei esker. Euskaraz dakitenen kopurua gora egiten ari da eta erabiltzen dutenena ere bai. Inoiz euskara erabili izan ez den esparruak ere irabazten ari da.

Alabaina, biztanle guztiak hartu beharrean, euskaldunak bakarrik hartuz gero, euskararen erabilerak behera egin du EAEn ere bai. Esan bezala, euskal hiztunen hazkundea euskaldun berriei zor zaie bereziki. Baina, euskaldun berri gehienek erraztasun handiagoa dute erdaraz euskaraz baino. Gainera, familia eta lagunartea erdaldunak dituzte, beraz harreman-sarean ez daukate behar besteko euskaldunik euskaraz hitz egiteko.

**ERABILERAREN TIPOLOGIA (FAMILIA, LAGUNARTEA ETA ERABILERA PUBLIKOA),
ADINAREN ARABERA
EUSKAL HERRIA, 1991-2001 (%)**



Iturria: Soziolinguistikako inkesta 2001. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza

3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

Euskararen eremuan aldaketak nonbait argiak eta nabariak izaten ari badira, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn) da. Begi-bistakoa da azken hogeitun urteotan euskararen ezagutza handitu egin dela. Elebidunak bostetik bat ziren 1981. urtean eta 2001ean, berriz, herena ziren; horrek esan nahi du euskarara etorri direla beste 200.000 hiztun potentzial. Gehikuntza hori, bestalde, orokorra izan da, izan ere hiru lurralde historikoetan gertatu da; are gehiago, adin-talde guztietan ere halaxe gertatu da, 65 urtetik gorakoak taldean izan ezik.

Gaur egun, elebidun gehienak (%66,3) hirietan bizi dira, batez ere hiru hiriburu-eremuko metropoli-guneetan eta EAeko errepide sare nagusietan lerrazten diren 10.000 biztanletik gorako udal-eremuetan.

3.1. EAeko biztanleen banaketa eta bilakaera

EAEn 2.082.587 lagun bizi dira, 2001eko zentsuaren arabera. Biztanleen banaketa irregularra da hiru lurraldeen artean. Bizkaiak biztanleen erdia baino zertxobait gehiago (%53,9) biltzen du, Gipuzkoak biztanleen herena (%32,3) eta Arabak gainerako %13,8.

Azken berrogei urteotan biztanleriak izan duen bilakaera aztertuz gero, esan behar da 1960tik 1975era bitartean hazkunde handia izan zela lurralde guztietan, eta bereziki gune industrializatuenetan. Prozesu hori, baina, gelditu egin zen 70eko krisiarekin, eta 80ko hamarkadatik aurrera joera-aldaketa etorri zen, batez ere Bizkaian. Azken 20 urteotan, beraz, EAek 60.000 biztanle galdu ditu. Dena den, lurraldeen artean aldeak antzematen dira. Izan ere, 1981etik 2000. urtera bitartean Arabako biztanleria %11 hazi da. Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa, aldiz, %6 eta %3 jaitsi da hurrenez hurren.

Azken 20 urteotako beste ezaugarri nabarmenetako bat biztanleriaren zaharkitzearena izan da, jaiotza-tasa oso txikiak eta sorterrira itzuli direnen migrazio-fluxuak eraginda. Halere, 2001eko zentsuan jasotako datuen arabera, lehen aldiz azken 20 urteotan 0 eta 4 urte bitarteko umeak 5 eta 9 urte bitartekoak baino gehiago dira.


EAEko biztanleetatik %27 erkidegotik kanpo jaio dira. Berton jaiotakoak ez diren 564.656 biztanleetatik gehienek (%52,9) erkidego mugakideren bat dute jatorri, alegia, Nafarroa, Errioxa, Kantabria edo Gaztela eta Leonekoak dira. Azken erkidego horretakoak dira, hala ere, gehienak (%40 inguru). Erki-dego horiez gain, historikoki populazio-emaile izan diren beste zenbaitetatik iritsi dira biztanle gehien: Extremadura (%11,9), Galizia (%9,9) eta Andaluzia (%7,1).

EAEko atzeritarren¹ taldea aztertuz gero, ikusiko dugu 30.017 lagun direla, betiere INE-k 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuan eman-dako datuen arabera. Kopuru horrek sinbolikoa dirudi, halere, azken urteotan bertarutzen ari den atzerritzar-kopuruari erreparatuz gero, handitzen ari dela ikusten da, eta hazkundeak joera horri eusten badio, baliteke atzeritarrek toki handia hartzea biztanlerian.

Aurreko guztia egiaztatzeko, nahikoa da ikustea EAEn bizi diren atze-ritarren %54,9 (16.493 lagun) 1996-2001 aldian iritsi dela gure erkidegora; eta azken urtean etorritakoak 1996an etorritakoak baino bost aldiz gehiago direla.

1 Atzeritarra: espainiarra ez den herritartasun bakarra duena.

**EAERA 1996-2001 ALDIAN ETORRITAKO ATZERRITAR KOPURUAREN BILAKAERA
URTEZ URTE ETA PILATUTAKO DATUAK**




Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak. 2001

3.2 Hizkuntza-gaitasuna (EAEn)

2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko elebidunak, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz ondo hitz egiten dutenak biztanleen ia herena dira (%32,2), elebidun hartzaileak, hau da, euskaraz ondo hitz egin ez arren, euskara ondo ulertzen dutenak %18,2, eta erdaldun elebakarrak, alegia, euskaraz hitz egiten ez dakitenak, biztanleriaren ia erdia (%49,6).

HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA (%)

EAE, 1981-2001



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak. 2001


3.3 Hizkuntza-bilakaeraren tipologia: BILA indizea (EAE)

BILA indizea hizkuntza-gaitasuna eta lehen hizkuntza aldagaiak gurutzatuta lortzen da. Zazpi taldek² osatzen dute tipologia, norbanakoaren hizkuntza-garapenak izan ditzakeen aukerak islatzen dituztenak. Indizeak euskarak zenbat hiztun galdu eta zenbat irabazi dituen jakiteko balio du.

2001eko Zentsuaren datuak oinarri hartuta, esango dugu, oro har, etxean euskara jaso dutenek gorde egiten dutela hizkuntza. Izan ere, EAeko euskaldun zaharrak %18,4 dira (365.972 lagun) eta jatorrizko elebidunak %2,9 (58.104 lagun); gutxi batzuek galtzen dute, baina ordainetan, askoz ere gehiago dira euskarak jasotzen dituen hiztun berriak.

2 Euskaldun zaharrak, jatorrizko elebidunak, euskaldun berriak, partzialki euskaldun berriak, partzialki erdaldunduak, guztiz erdaldunduak eta erdaldun zaharrak.

EUSKARAREN GALERAK ETA IRABAZIAK, ADINAREN ARABERA
EAE, 2001



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak. 2001

3.4 Etxeko hizkuntzaren tipologia: ERABIL indizea (EAE)

ERABIL indizea lortzeko, BILA indizea (lehen hizkuntzaren eta hizkuntz-gaitasunaren arteko konbinazioa) eta etxeko hizkuntza (euskara, euskara eta gaztelania, edo gaztelania) gurutzatu dira. Gurutzaketa horren bidez, BILA indizeko taldeek etxean zein hizkuntza darabilten jakin dezakegu.

Lehenengo eta behin, gogoratu EAEko biztanleen erdia erabat erdaldunduez eta erdaldun zaharrez osatua dagoela. Euskaldun zaharrak populazioaren %18,5 dira; talde horretan daude euskal hiztun aktibo ia guztiak, hau da, populazioaren %13. Talde horretako gehienak euskaldun aktiboak dira, ia hiru laurdenak; bostetik bat aktiboak dira, bietan, euskaraz eta gaztelaniaz, eta hamarrenak euskaldun zahar pasiboak.

3.5 Etxeko hizkuntza etxeko euskaldunen dentsitatearen arabera (EAE)

Hizkuntza erabiltzeko berebiziko garrantzia du hiztunen dentsitateak eta, horrekin batera, hizkuntza horretan hitz egiteko erraztasunak. Euskara ohiko hizkuntza izan dadin etxean, beharrezkoa da etxeko guztiek jakin dezaten euskaraz hitz egiten. Nahikoa da familiako kide bakar batek euskaraz ez jakitea erabilerak oso behera egiteko.

Etxeko elebidunen dentsitatea %80tik gorakoa bada, euskara erabili ohi dute %72,3k eta euskara eta gaztelania, biak %17,4k. Gainerakoetan gaztelania erabili ohi dute (%10,3).

Baina elebidun-dentsitateak %80tik behera egiten badu, kasurik onean ere (dentsitatea %60-%80 artekoa denean), %16,5era jaisten da erabilera. Halakoetan, bi hizkuntzen erabilera %33,7koa da. Etxeko elebidun-dentsitatea %60tik beherakoa bada, ia inork ez du erabiltzen nagusiki euskara, eta bi hizkuntzen erabilera ere %13 ingurukoa da.